**UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL**

**2017ko Otsailak 28 / 28 - Febrero - 2017**

**TOKIA / LUGAR:** UDALETXEKO BATZAR ARETOA
SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 2017/02/28

**HASIERA / INICIO:** 17:00etan

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
2. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
3. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
4. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
5. Alkateordea, Don Humberto Jaio Sagasti jauna
6. Alkateordea, Don Jose Maria Andres Ibañez de Garaio jauna
Doña Olaia Albizu Gallastegi andrea
Don Harri Guridi Ordeñana jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EH BILDU)**
Don Daniel Maeztu Perez jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Jon Andoni del Amo Castro jauna
Doña Rosa Maria Mintegi Egileor andrea
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Don Aritz Bravo Zubillaga jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna

**HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D)**
Don Julian Rios Santiago jauna
Doña Maria Juliana Perera Figueredo andrea
Don Jorge Varela Dorrio jauna

**ZINEGOTZIA / CONCEJAL (PSE-EE (PSOE))**
1. Alkateordea, Doña Pilar Ríos Ramos andrea

**ZINEGOTZIA / CONCEJAL (PP)**
Don Francisco Garate Mintegui jauna

**EZ ETORTZEA JUSTIFIKATU DU/EXCUSA SU ASISTENCIA**
Don Mauricio Garcia Martin jauna

**KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES**
Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

Alkate andrea **Irigoras Alberdik (EAJ/PNV)** 17:00ak direnean, hurrengoa dio:

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)** siendo las 17:00 horas, comenta lo siguiente:

Bozeramaleen batzordeak aho batez onartu du *Mayors for Peace* erakundeari adierazpen modura pasatzea gaurko plenoko 6. puntuan aurkeztu dudan mozio-proposamena. Beraz, 6. puntua desagertu egingo da gai-ordenatik, eta testua hedabideei pasatuko diegu.

La Junta de Portavoces ha aprobado por unanimidad enviar a la organización Mayors for peace la propuesta de moción que he presentado en el punto seis del pleno de hoy, a modo de declaración. Por tanto, el punto seis desaparece del orden del día, y se mandará el texto a los medios de comunicación.

Jarrain, gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

A continuación se pasó a tratar de los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTEN ZIRRIBORROAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA, 2015EKO UZTAILAREN 9KO ETA 2016KO AZAROAREN 29KO OHIKOAK.**

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LOS BORRADORES DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES CORRESPONDIENTES A LAS ORDINARIAS DE 9 DE JULIO DE 2015 Y 29 DE NOVIEMBRE DE 2016.**

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborroak, 2015eko uztailaren 9ko eta 2016ko azaroaren 29ko ohikoak hain zuzen ere.

DADA LECTURA a los borradores de las Actas de las sesiones anteriores, correspondientes a las Ordinarias de 9 de Julio de 2015 y de 29 de Noviembre de 2015.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: 2015eko uztailaren 9ko aktaren inguruan zerbait esateko?

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: ¿Algo que decir sobre el acta del pleno del 9 de julio de 2015?

* **Uribe Padilla andreak (EH Bildu)**: Nik bota nuen aurreko plenoan (uztailekoa baino arinagokoan) pendiente zegoela, eta oraindik pendiente daude hainbat izendapen. Bata, Euskal Fondokoa; bestea, San Antonio-Sta. Rita eskolakoa; eta, bestea, Landako eskolakoa. Inork ez baditu hartu nahi, gu prest gaude izendapen horiek asumitzeko.

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (EH Bildu)**: En el anterior pleno (anterior al de julio) comenté que estaba pendiente, y todavía quedan varios nombramientos. Uno de ellos es el de Euskal Fondoa; otro, el del colegio San Antonio-Santa Rita; y el último, el del colegio Landako. Si nadie quiere hacerse cargo, nosotros estamos dispuestos a asumir esos nombramientos.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Berreskuratu egingo ditugu izendapenak, hutsik daudenak, eta hurrengo plenorako ekarriko ditugu.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Vamos a recuperar los nombramientos que están vacantes, y los traeremos en el próximo pleno.

2016ko azaroaren 29ko aktaren inguruan zerbait esateko?

BOZKETA egin ostean.

Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez, **ONARTU EGITEN DU 2015eko uztailaren 9**ko eta **2016ko azaroaren 29**ko ohiko aktak.

¿Algo que decir sobre el acta del pleno del 29 de noviembre de 2016?

PREVIA votación realizada al efecto.

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, **APRUEBA** las Actas de las sesiones ordinarias de **9 de Julio de 2015** y de **29 de Noviembre de 2016.**

**BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Zuen esku dauzkazue prozesuan dauden espediente guztiak Idazkaritza orokorrean.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

**DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:**

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Todos los expedientes están disponibles en la Secretaría General.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**HIRU.- TOKI ARAUBIDEAREN TESTU BATEGINAREN 97. ARTIKULUAK ARAUTZEN DUEN ESPEDIENTE-HASIERA ONARTZEARI BURUZKO IRIZPENA. (OGASUNA, PERTSONALA ETA UDALTZAINGOA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA, 2017KO OTSAILAREN 8KOA).**

Ogasuna, Pertsonala eta Udaltzaingoa Batzordearen 2017ko otsailaren 8koa irizpenaren berri ematen da:

"*Txostena, Landako Erakustazokaren (LESA) desegite prozesuaren eta Durangoko udalak zein kudeaketa modua hartu behar duen prozesuaren barruan kokatzen da. Dokumentua erantsita dago.*

*Presidenteak bozkatu egiten du proposamena Osoko Bilkurara eramateko, txostenean agertzen den bezala.*

*Alde: 4, EAJ-PNV (2), PSE-EE (PSOE) (1) eta PP (1).*
*Kontra: 0.*
*Abstentzioak: 3, EH BILDU (2), SQ-2D (1).*

**TRES.- DICTAMEN, SI PROCEDE, SOBRE APROBACIÓN DE INICIO DE EXPEDIENTE REGULADO EN EL ART. 97 DEL TRRL. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE HACIENDA, PERSONAL Y POLICÍA MUNICIPAL DE 8 DE FEBRERO DE 2017).**

Dada lectura al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Hacienda, Personal y Policía Municipal en sesión de 8 de Febrero de 2017:

"*El informe se enmarca en el proceso de disolución de Landako Erakustazoka (LESA) y de la modalidad por la que debe decantarse el Ayuntamiento en su forma de gestión. Se adjunta el documento como Anexo.*

*Por el presidente se pone a votación la propuesta de elevar al Ayuntamiento pleno, tal y como se recoge en el informe.*

*Votos a favor: 4, EAJ-PNV (2), PSE-EE (PSOE) (1) y PP (1).*
*Votos en contra: 0.*
*Abstenciones: 3, EH-BILDU (2) y SQ- 2D (1).*

*Batzordetik hurrengo proposamenaren aldeko irizpena eramaten da Osoko Bilkurara:*

*LEHENA: Onartzea TAXTBko 97.artikuluan arautzen den espedienteari hasiera ematea, egiaztatzeko egokia dela eta aukera dagoela udalak jarduera hauek gauzatzeko: Landako erabilera anitzerako eraikinaren eta alboko bulegoa kudeatzea eta ustiatzea, gaitasun juridiko osoarekin; azokak eta merkatuak sustatzea eta kudeatzea; lan arlotik kanpoko jarduera ekonomikoak garatzen laguntzea; eta higiezinak eta aparkaleku publikoa uztea eta alokatzea.*

*BIGARRENA: Azterketa-batzorde bat izendatzea eta sortzea. Kideak izango dira Ogasun batzorde informatiboko zinegotziak, eta udaleko kontuhartzailea eta idazkaria, iritzia emateko eskubidearekin, baina boto barik. Batzordeko presidentea Ogasun batzordeko presidente bera izango da.*

*HIRUGARRENA: Azterketa-batzordeari eskatzea espedientean aipatutako memoria idatz dezala, eta batzordeko presidenteak udalbatzaren osoko bilkurara eroan dezala, beran aintzat hartua izan dadin."*

*Con dictamen favorable de esta Comisión, se eleva al Ayuntamiento Pleno la propuesta de:*

*PRIMERO: Aprobar el inicio de expediente regulado en el artículo 97 del TRRL, para acreditar la conveniencia y oportunidad de que el Ayuntamiento ejerza la actividad de gestión integral y explotación del Edificio Multiusos de Landako y demás dependencias anexas con plena capacidad jurídica, así como, la promoción de Ferias y Mercados, gestión de los mismos, apoyo para el desarrollo de actividades económicas no laborales y la cesión y arrendamiento de inmuebles, así como parking público.*

*SEGUNDO: Nombrar y constituir una Comisión de Estudio integrada por los corporativos que componen la Comisión Informativa de Hacienda y por la intervención y secretaría municipal, con voz y sin voto. La presidencia de la Comisión corresponderá al presidente de la referida comisión.*

*TERCERO: Disponer que la Comisión de Estudio proceda a elaborar la memoria del citado expediente y por su presidencia se presente al Pleno de la Corporación para su toma en consideración."*

* Idazkari Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: Gaur egun, Landakogunea merkataritza-sozietate publiko baten bidez kudeatzen da, eta kapitala tokikoa da bere osotasunean.

Sozietatearen desegite nominala 2015eko abenduaren 1ean egin zen. Hala ere, sozietate horrek jarduera gauzatzen jarraitu du likidazio egoeran, nahiz eta gutxieneko jarduerak izan diren. Ez da inolako jarduera proaktiborik burutu, eta likidazio kontseilua azpiegitura eta jarduera mantentzeko gutxieneko ekintzak egitera mugatu da.

Behin betiko likidazioa egin aurretik, eta Landakoguneak eskaintzen duen jarduera mantentzeko adostasuna dagoenez, kudeaketa eredu berria zein izango den zehaztu behar da.

Zerbitzu publikoen kudeaketaren antolaketa eredua osoko bilkuran adostu behar da.

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: La actual fórmula de gestión de Landakogunea es la de sociedad pública mercantil de capital íntegramente local.

La disolución nominal de la sociedad se ha realizado el día 1 de diciembre de 2015. Sin embargo, dicha sociedad, en liquidación, ha seguido ejerciendo actividad, aún cuando sea de carácter residual, toda vez que no ha realizado actividad proactiva alguna y su consejo de liquidación se ha limitado a la realización de acciones mínimas de mantenimiento de la infraestructura y actividad.

Procede, antes de la liquidación definitiva, habida cuenta del parecer unánime de la necesidad de prosecución de la actividad que presta Landakogunea, la determinación de la forma de gestión.

En relación con la gestión de servicios públicos, su modo de organización debe acordarse por el Pleno.

Prozeduraren edukia Tokiko Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenei buruzko Testu Bateginaren 97.artikuluan dago jasota:

a) Udalbatzaren hasierako erabakia, udalbatzako kideez eta pertsonal teknikoaz osatutako azterketa-batzorde bat izendatu ondoren hartua.

b) Batzorde horrek memoria bat idatziko du, dagokion jardueraren gaineko ezaugarri soziala, juridikoa, teknikoa eta finantzarioa jasotzen dituena; beharrezkoa da, halaber, legeak aurreikusitako kudeaketa ereduetako bat aukeratzea, eta zehaztea, baita ere, eskaintza zein kasutan eten behar litzatekeen. Horrekin batera, zerbitzuaren prezioen proiektua aurkeztuko da.

c) Udalbatzak aintzakotan hartu eta gero, jendaurrean ikusgai jarriko da memoria, hogeita hamar egunetan gutxienez, eta partikularrek eta erakundeek oharrak egin ahal izango dituzte epe horretan.

d) Toki-erakundearen osoko bilkurak proiektua onetsiko du.

Espediente hau aurretiaz tramitatu ez den kasuetan, jurisprudentziak guztiz baliogabetu izan du, baita zerbitzuak martxan egon eta kudeaketa eredua aldatzea baino behar ez zen kasuetan ere

Horrela, 2017ko otsailaren 8ko Ogasun, Pertsonal eta Udaltzaingo Batzorde Informatiboak aldeko irizpena emandako proposamena egiten zaio Udalbatzari:

LEHENA: Onartzea Tokiko Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenei buruzko Testu Bateginaren 97.artikuluan arautzen den espedienteari hasiera ematea, egiaztatzeko egokia dela eta aukera dagoela udalak jarduera hau gauzatzeko: Landako erabilera anitzerako eraikinaren kudeatzea eta ustiatzea.

BIGARRENA: Azterketa-batzorde bat izendatzea eta sortzea. Kideak izango dira Ogasun batzorde informatiboko zinegotziak, eta udaleko kontu-har-

El contenido del procedimiento está establecido en el artículo 97 del Texto Refundido de las disposiciones vigentes en materia de Régimen Local.

a) Acuerdo inicial de la Corporación, previa designación de una Comisión de estudio compuesta por miembros de la misma y por personal técnico.

b) Redacción por dicha Comisión de una memoria relativa a los aspectos social, jurídico, técnico y financiero de la actividad económica de que se trate, en la que deberá determinarse la forma de gestión, entre las previstas por la Ley, y los casos en que debe cesar la prestación de la actividad. Asimismo, deberá acompañarse un proyecto de precios del servicio.

c) Exposición pública de la memoria después de ser tomada en consideración por la Corporación, y por plazo no inferior a treinta días naturales, durante los cuales podrán formular observaciones los particulares y Entidades, y

d) Aprobación del proyecto por el Pleno de la Entidad Local.

La no tramitación previa de este expediente es considerada causa de nulidad de pleno derecho del expediente de manera reiterada por la jurisprudencia; incluso en casos en los que el servicio ya estaba implantado y simplemente se cambia la forma de gestión.

Así, la propuesta que se somete a la consideración del Pleno, dictaminada por la Comisión informativa de Hacienda, Personal y Policía Municipal es la siguiente:

PRIMERO: Aprobar el inicio de expediente regulado en el artículo 97 del Texto Refundido de las disposiciones vigentes en materia de Régimen Local, para acreditar la conveniencia y oportunidad de que el Ayuntamiento ejerza la actividad de gestión integral y explotación del Edificio Multiusos de Landako.

SEGUNDO: Nombrar y constituir una Comisión de Estudio integrada por los corporativos que componen la Comisión Informativa de Hacienda

tzailea eta idazkaria, iritzia emateko eskubidearekin, baina boto barik. Batzordeko presidentea Ogasun batzordeko presidente bera izango da.

HIRUGARRENA: Azterketa-batzordeari eskatzea espedientean aipatutako memoria idatz dezala, eta batzordeko presidenteak udalbatzaren osoko bilkurara eroan dezala, bertan aintzat hartua izan dadin.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Erabaki hau hartzeko oso lagungarri suertatu zaigu Idazkaritzak eginiko txostena, azaroaren 30ekoa. Eskertzekoa da erabilgarria bezain beharrezkoa den lan hori izatea. Eta dagokionari, ZORIONAK egindako lanagatik.

Eta hala, erabaki bat hartu dugu, legea betetzeko hartu beharrekoa. Botoa eman behar dugu, erabakitzeko ea Tokiko Araubidearen Testu Bateginaren 97. artikuluan arautako espedientea abiaraziko dugun edo ez Udalak Landakon dagoen erabilera anitzeko pabilioiaren kudeaketa osoa eta ustiatzea bere gain hartzea komeni den eta horretarako aukerarik ba ote den egiaztatzeko; baita Ogasun Batzordea osatzen duten kideek eta teknikariek osatutako batzorde bat izendatu eta eratu ere.

Otsailaren 8an irizpena ematean aldeko botoa eman genuen eta gure botoa ez du ezerk aldatu.

* 1. Alkate Ordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Guk hasieratik izan dugun jarrera berretsi nahi dugu.

Bere garaian pabilioi hori eraiki zenean, udalerriko edo eskualdeko ekonomiaren trakzio gune izatearen aldeko apustua egin genuen; horretarako, gure ustez, bezero izan litezkeenak bilatzea sartu behar da kudeaketan. Bigarren ildo batean ere sinesten dugu eta da herriak pabilioiaz gozatzeko aukera izan behar duela. Izan daiteke sozietate bat edo

y por la intervención y secretaría municipal, con voz y sin voto. La presidencia de la Comisión corresponderá al presidente de la referida comisión.

TERCERO: Disponer que la Comisión de Estudio proceda a elaborar la memoria del citado expediente y por su presidencia se presente al Pleno de la Corporación para su toma en consideración.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Para tomar esta decisión nos ha sido una gran ayuda el informe de fecha de 30 de noviembre elaborado por Secretaría. Es de agradecer poder contar con un trabajo tan útil como necesario. A quien le corresponda ZORIONAK por ello.

Y con ello, tomamos una decisión necesaria por cumplimiento de la ley. Tenemos que votar si iniciamos el expediente regulado en el artículo 97 del TRRL para acreditar la conveniencia y oportunidad de que el ayuntamiento ejerza la actividad de gestión integral y explotación del Pabellón Multiusos ubicado en Landako; así como nombrar y constituir una comisión de estudio integrada por los corporativos que componen la comisión de Hacienda, y personal técnico.

Ya votamos a favor cuando se dictaminó con fecha 8 de febrero, y nada cambia nuestro sentido del voto.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Por nuestra parte, queremos reafirmar nuestra postura que hemos mantenido desde un inicio.

Cuando en su día se construyó este pabellón apostamos porque fuera un sitio que fuera tractor para la economía del municipio o de la comarca; para ello creemos que se tiene que gestionar buscando potenciales clientes. También creemos en una segunda línea, que tiene que ser que el pueblo pueda disfrutar de este pabellón. El formato que tenga, sea

beste edozein formula; berdin zaigu zer formatu duen, uste baitugu garrantzitsuena kudeaketa nola egin dela.

Horren aldeko apustuari eutsiko diogu, aldatu egingo dugu formula eta uste dugu filosofiari eutsi eta sorreran ezarritako helburuak lortzeko ahal den guztia egin behar dela.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: LESA enpresa deseginda dago eta likidazioan 2015eko abenduaren 1etik. 2015eko urtarrilaren 1etik genekien egoera horrelakoa izango zela, baina nahiago izan zen egoera legeak agindutakora arte luzatzea.

Joan den abenduaren 1ean hasi zen epea, enpresa desegiteko 36 hilabete ezartzen dizkigun epe hori, aurrera doa. 15 hilabete igaro dira jada eta espedientea abiarazte hau besterik ez dugu oraindik.

Uste dugu erritmo honetan nekez lortuko dugula inora iristea; berriro esan nahi dugu, beharrezkotzat dugun arren, nahiko denbora mugatua dugula eta erritmo honetan, ez dugula uste helburua lortuko dugunik.

Espedientea abiaraztea zuzena iruditzen zaigu, baina gauzak azkarrago egiten ez baditugu, zaila izango da prozesu honetan norabait iristea.

* **Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu)**: LESAren bidea labur azalduko dut. Oraingo egoera honetan gaude 2014ko urrian Foru Aldundiak Udal honi gogorarazi ziolako zuzendu egin behar zuela finantza arloan antzemandako desoreka. Udalak egoera zuzendu ahal izango zuen planteatu izan balu, baina planteatu ez zuenez, oraingo egoera honetara iritsi gara.

EH Bilduk, Foru Aldundiak idatzi hori igorri zuela jakin zuenean, idatzia eskatu zuen haren nondik norakoak ezagutzeko, ezkutatu egin zitzaigun informazioa eta ez genuen administrazioarekiko auzi-errekurtso bat aurkeztea beste aukerarik izan. 2014ko likidazioan ere –kasu honetan 2015eko

sociedad o cualquier otra fórmula nos da exactamente igual, porque creemos que lo importante es la gestión de cómo se lleve a cabo.

Vamos a seguir apostando por ello, vamos a cambiar la fórmula y creemos que la filosofía se debe de mantener y hacer todo lo posible para alcanzar los objetivos por los que en su día se creó.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: LESA es una empresa que en estos momentos se encuentra disuelta y en liquidación desde el pasado 1 de diciembre de 2015. Sabíamos que esta situación iba a ser así desde el pasado 1 de enero de 2015, aunque se prefirió alargar la situación hasta lo que mandaba la ley por obligación.

El tiempo que comenzó a correr el pasado 1 de diciembre que nos marca 36 meses para disolver la empresa sigue pasando. Han pasado ya 15 meses, y a día de hoy lo único que tenemos es este inicio de expediente.

Entendemos que a este ritmo difícilmente vamos a conseguir llegar a ningún sitio; reiteramos que, pese a que pensamos que es necesario, tenemos un tiempo bastante limitado para hacerlo y a este ritmo no creemos que vayamos a conseguir dicho objetivo.

Nos parece correcto el inicio de expediente, pero si no nos damos más prisa será difícil llegar a algún sitio en todo este proceso.

* Concejal **Sr. Urkiza Quilez (EH Bildu)**: Vamos a realizar un breve repaso de lo que ha sido LESA. Nos encontramos en esta situación porque en octubre de 2014 la Diputación hizo un recordatorio a este ayuntamiento en el cual le requería la corrección del desequilibrio financiero que se había observado. Esto lo pudo haber corregido este ayuntamiento si lo hubiera planteado, pero como no lo hizo, nos encontramos en esta situación.

EH Bildu, una vez conocido que la Diputación había metido ese escrito, requirió dicho escrito para conocer de qué se trataba, se nos ocultó la información, no nos quedó otra cosa que meter un recurso contencioso-administrativo. Incluso en la propia liquidación del 2014, que se suele presentar en el mes de marzo-abril -de

martxoan-apirilean aurkeztua– gai honen inguruko informazioa ezkutatu zitzaigun.

2015eko maiatzean izan ziren hauteskundeak eta informazio hau, gobernu-taldeak agerian jarri nahi ez zuen hori, nahita ezkutatu zuen. 2014ko abenduaren 31n, deseginda egon behar zuen LESAk eta enpresak hori bere kabuz egin ezean, 2015eko abenduaren 1ean, automatikoki deseginda geldituko zen; ez likidazio-aldian, baizik deseginda. Likidazio-aldia desegitearen aurreko aldia da. Oraingo fase hau ez du inork ezagutzen.

Bitartean, auzi-errekurtsoaren inguruko erabakia etorri zen, arrazoia eman ziguten eta haren harira, alkateak eskatua genion informazioa eman behar izan zigun. 2016ko ekainean, lehen aldiz, LESAren Batzarrean kontatu ziguten hau guztia eta Idazkaritzako eta Esku Hartzailetzako txostenak eman zizkiguten. Txosten haietan jasota zegoen, besteak beste, sozietatea desegin ez zenez, 2015eko abenduaren 1ean automatikoki deseginda gelditu zela.

2017ko otsailaren 28a da gaur eta orain aurkeztu digute kudeaketa berria bilatzeko lehen urratsa. Guk ere uste dugu kudeaketa berria bilatu behar dela, baina kudeaketa iraunkorra bilatu behar da, orain artekoa ez baita izan ez iraunkorra, ezta kudeaketa ere; egin dugun gauza bakarra dirua gastatu eta gastatu aritzea izan da.

Eta hala ere, batzordeko azken bileretako batean, gobernu-taldeari hau guztia nola garatzeko asmoa zuen galdetu genionean, harrapatu egin nahi genituela entzun behar izan genuen. Harrapatu, nor? Guk uste dugu LESAk ez zuela inoiz enpresa publiko izan behar eta denborak, orain ikusten den moduan, arrazoi eman digu.

* 4. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Gure aldeko bozka emango diogu; uste dugu aurrerapauso bat dela jarraitu beharreko prozeduraren barnean, epean betetzen saiatuko gara, eta eraman beharreko erritmoa eramango dugu epeak betetzeko.

2015 en este caso-, se nos ocultaba la información a este respecto.

Las elecciones fueron en mayo de 2015, y esta información, que al Equipo de Gobierno no le interesaba nada ponerla en la palestra, la ocultó deliberadamente. A 31 de diciembre de 2014, LESA tenía que estar disuelta y si no lo hacía la empresa por sí misma, el 1 de diciembre de 2015 quedaba automáticamente disuelta; que no en periodo de liquidación, sino disuelta. El periodo de liquidación es el periodo previo a la disolución. El estadio en el que estamos ahora nadie lo conoce.

Entre tanto, se resolvió el contencioso-administrativo el cual nos dio la razón y obligó a la Alcaldesa a darnos la información que habíamos requerido. En junio de 2016, por primera vez, en la Junta de LESA se nos habló de todo esto, se nos entregaron informes de Secretaría e Intervención, en los cuales se mencionaban cosas como que al no haber disuelto la sociedad, quedaba automáticamente disuelta el 1 de diciembre de 2015.

Nos encontramos hoy a 28 de febrero de 2017, y ahora se nos presenta el primer paso en busca de una nueva gestión. Nosotros también creemos que hay que buscar una nueva gestión, pero un gestión sostenible porque hasta ahora no ha sido ni sostenible ni ha sido gestión; lo único que hemos hecho ha sido gastar y gastar dinero.

Y todavía, en una de las últimas comisiones, tuvimos que oír al preguntar al Equipo de Gobierno cómo pensaba desarrollar todo esto, qué íbamos a pillar. A pillar ¿a quién? Lo que nosotros creemos es que LESA nunca debería de haber sido una empresa pública, y el tiempo, como se ve, nos ha dado la razón.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Vamos a votar a favor. Nos parece un avance dentro del proceso a seguir; intentaremos cumplir un plazo determinado, y nos ceñiremos al ritmo necesario para cumplirlo.

Ez dut istorio txikitxorik egingo, entzun dugu batzuen bertsio subjektiboa eta "ez dakit nork" esandako hitzak ere hona ekarri dira; esan dezala nork esan zuen Gobernu Talde honek ez baitzuen hitz horiek esan, ez behintzat gure taldeak. Egin beharreko gai bat da, eta argi dago denon gustukoa ez dela izango.

Guk kudeaketa egiten dugu; ez dugu demagogiarik egiten, ez dugu kerik saltzen beste batzuek bezala, lan egiten dugu, kudeatu egiten dugu, eta kudeaketa zer den ez dakienak zaila da hori baloratzea.

* **Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu)**: Legea bete beharra zegoen, ez orain bakarrik; lehen ere bai, eta ez da egin. Kudeatzeko modua aldatu behar da; gure apustua zuzeneko kudeaketaren, eraginkorrago izatearen eta erabilera sozialagoa egitearen eta espazioa irekita edukitzearen aldekoa izan da beti.

Bere garaian proposamen bat egin genuen eta neguan, hutsik dagoenean irekitzen da, familiek erabili eta seme-alabekin jolasteko lekua izan dezaten. Espazioak erabilera hobea izateko, gure ustez, Kulturarekin, Astarloa Kulturgintzarekin, elkarteekin eta ondo-ondoan duen antzokiarekin ere koordinatu egin behar da.

Gobernu-Taldeak adierazitakoari dagokionez, epeak gaindituta daude, aspaldi eman behar ziren urratsak eta kudeaketaren denbora eta lana... ez dago den-dena erakutsi beharrik.

* 4. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Ondo dago esatea legea bete egin behar dela, jakina, orain eta atzo, denbora eta garai guztietan, eta ez bakarrik bakoitzari komeni zaionean.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitxa hauxe:

No voy a entrar en historietas; ya hemos escuchado la versión subjetiva de algunos, y también se han traído las palabras de "no sé quién". Que diga quién lo dijo, porque no fue nadie del Equipo de Gobierno, al menos no de nuestro grupo. Es un asunto que hay que abordar, y está claro que no va a ser del gusto de todos.

Nosotros nos dedicamos a la gestión; no hacemos demagogia, no vendemos humo como otros, trabajamos, gestionamos, y es complicado que lo valore quien no sabe qué supone gestionar.

* Concejal **Sr. Urkiza Quilez (EH Bildu)**: La legalidad había que cumplirla, no solo ahora; antes también, cosa que no se ha hecho. Hay que cambiar la forma de gestión; nosotros hemos apostado siempre por una gestión directa, por ser más eficientes y por un uso más social, que el espacio esté abierto.

En su día hicimos una propuesta y en los meses de invierno se suele abrir cuando está vacío, para que las familias puedan utilizar el espacio y puedan jugar con sus hijos e hijas. También creemos que tiene que haber una coordinación con cultura, con Astarlos Kulturgintza, con las asociaciones, e incluso con el antzoki, que está ahí mismo, para que ese espacio pueda tener mejor uso.

Respecto a lo que comentaba el Equipo de Gobierno decir que los plazos ya están más que pasados, se deberían de haber dado pasos hace tiempo y el tiempo de la gestión y el trabajo ...para muestra un botón.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Está bien decir que hay que cumplir la legalidad, tanto ahora como antes, pero en todo momento y en todos los asuntos, no solo cuando le conviene a cada cual.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Aldeko botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 1 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 1 Alderdi Popularra.

- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.

- Abstentzioak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, onartu egiten du:

**Lehena**.- Onartzea TAXTBko 97.artikuluan arautzen den espedienteari hasiera ematea, egiaztatzeko egokia dela eta aukera dagoela udalak jarduera hauek gauzatzeko: Landako erabilera anitzerako eraikinaren eta alboko bulegoa kudeatzea eta ustiatzea, gaitasun juridiko osoarekin; azokak eta merkatuak sustatzea eta kudeatzea; lan arlotik kanpoko jarduera ekonomikoak garatzen laguntzea; eta higiezinak eta aparkaleku publikoa uztea eta alokatzea.

**Bigarrena**.- Azterketa-batzorde bat izendatzea eta sortzea. Kideak izango dira Ogasun batzorde informatiboko zinegotziak, eta udaleko kontu-hartzailea eta idazkaria, iritzia emateko eskubidearekin, baina boto barik. Batzordeko presidentea Ogasun batzordeko presidente bera izango da.

**Hirugarrena**.- Azterketa-batzordeari eskatzea espedientean aipatutako memoria idatz dezala, eta batzordeko presidenteak udalbatzaren osoko bilkurara eroan dezala, beran aintzat hartua izan dadin.

- Votos a favor: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 1 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 1 del Partido Popular.

- Votos en contra: NINGUNO.

- Abstenciones: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.

En su vista,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, acuerda:

**Primero**.- Aprobar el inicio de expediente regulado en el artículo 97 del TRRL, para acreditar la conveniencia y oportunidad de que el Ayuntamiento ejerza la actividad de gestión integral y explotación del Edificio Multiusos de Landako y demás dependencias anexas con plena capacidad jurídica, así como, la promoción de Ferias y Mercados, gestión de los mismos, apoyo para el desarrollo de actividades económicas no laborales y la cesión y arrendamiento de inmuebles, así como parking público.

**Segundo**.- Nombrar y constituir una Comisión de Estudio integrada por los corporativos que componen la Comisión Informativa de Hacienda y por la intervención y secretaría municipal, con voz y sin voto. La presidencia de la Comisión corresponderá al presidente de la referida comisión.

**Tercero**.- Disponer que la Comisión de Estudio proceda a elaborar la memoria del citado expediente y por su presidencia se presente al Pleno de la Corporación para su toma en consideración.

**LAU.- EUSKAL HERRIA BILDU UDAL TALDEAREN MOZIOA, ZIRITZA-BUSTINTZA AUZOKO URBANIZAZIOA EXEKUTATZEARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA 2017001450, 2017KO OTSAILAREN 23KOA).**

Euskal Herria Bildu Udal Taldearen ordezkariak aurkeztutako mozioa, Ziritza-Bustintza Auzoko urbanizazioa exekutatzeari buruzkoa, Sarrera Erregistroa: 2017ko otsailaren 23koa, eta honako hau dioena:

"*Denbora luzez aritu dira Ziritza eta Bustintzako jendea beraien auzoak behar dituzten hobekuntzak eskatzen. Hilabete askotan Gobernu Taldeak entzungor egin ostean, EH Bildutik bertako auzotarrekin batu eta Udalera arazoa ekarri ondoren, azkenean hobekuntza batzuk martxan jarri dira. Hobekuntza hori bloke biak batzen dituen pasalekua da.*

*Bere garaian, inguruaren urbanizazioan egin ez zen gauza bat izan zen hori. Horren aurrean, auzotarrak modu naturalean erabiltzen hasi ziren existitzen ez zen pasaleku hori, beste behin, erabilera arruntez auzoko desira-bide argi bat marraztuz. Eskaera hori erantzun beharrean, Udalak hesi bat jarri zuen pasabidea oztopatuz. Hala ere, herritarren presioz, eta gaia Udalera ekarri ostean, lortu da pasabide hori errealitate bidean jartzea oraingo astean hasitako obrekin. Esan bezala, pozten gaitu herritarrek horrenbeste eskatutako hobekuntzak egiten hasi direla ikustea.*

*Dena den, badago oraindik auzoan hobetu beharreko hainbat. Izan ere, bukatu barik geratu den auzoa da, eta abandonaturik dagoen beste bat. Hala nola, Ziritzako auzotarrek ez dute beraien portaletako baten urbanizazio amaiturik, norbaitek beste fase baterako uzteko burutazioa izan zuelako: inora irteten diren portalak dira.*

*Ondoko aparkalekuan ere hobekuntzak beharko lirateke, hala nola, espaloi estua oinezkoentzako ibilgarri egitea kotxeek hau okupatzea ekidinez.*

**CUATRO.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL EUSKAL HERRIA BILDU, RELATIVA A LA EJECUCIÓN DE LAS OBRAS DE URBANIZACIÓN EN EL BARRIO ZIRITZA-BUSTINTZA. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2017001450, DE 23 DE FEBRERO DE 2017).**

Dada lectura a la Moción presentada por la representación del Grupo Municipal Euskal Herria Bildu, relativa a la ejecución de las obras de urbanización en el barrio Ziritza-Bustintza, con Registro de Entrada nº 2017001450, de 23 de Febrero de 2017, del tenor literal siguiente:

"*Las vecinas y vecinos del barrio Ziritza-Bustintza llevan mucho tiempo pidiendo mejoras para la zona. Tras varios meses en que el Equipo de Gobierno hizo oídos sordos a esas peticiones, EH Bildu se reunió con las personas que viven en la zona, y después de que trasladáramos el tema al ayuntamiento, al final se han puesto en marcha algunas mejoras. Una de las mejoras ha sido el paso que une los dos bloques.*

*Ese paso fue una de las cosas que quedó pendiente en las obras de urbanización. Siendo así, las vecinas y vecinos empezaron a utilizar ese paso que no existía de un modo natural, dibujando, una vez más, con el uso cotidiano un claro camino de deseo. En lugar de responder a su demanda, el ayuntamiento instaló un vallado y obstaculizó el paso. Sin embargo, con la presión de las vecinas y vecinos, y tras trasladar el tema al ayuntamiento, se ha conseguido que ese camino pronto se haga realidad con las obras que han empezado esta semana. Como ya hemos dicho, nos alegra ver que se haya comenzado a realizar las mejoras demandadas por las personas de la zona.*

*Aún así, quedan muchos asuntos por mejorar en la zona; se trata de un barrio que han dejado sin terminar, otro barrio abandonado en Durango. Un ejemplo es que en los portales de Ziritza no finalizaron las obras de urbanización, porque a alguien se le ocurrió posponer esas obras para otra fase; son portales que no llevan a ningún sitio.*

*El aparcamiento situado al lado también necesita mejoras, entre otras, cambiar la estrecha acera para que los peatones puedan*

*Inguruko begetazioarekin ere arazoak daude zonalde osoan, Ziritza-Bustintzatik Aramotzera, egoera guztiz utzia izanik, arratoien presentzia nabaria baita inguruan.*

*Hori horrela,*

*MOZIOA:*

1. *Durangoko osoko bilkurak urbanizazio planaren 2. faseko arduradunari Ziritzako inguruko urbanizazioa (beraien atzealdeko portaletakoa) segituan exekutatzea exijitzen dio, legez horren kostua bere gain doa eta.*

2. *Aurrekoa bete ezean, Durangoko Udalak egingo ditu aipatutako urbanizazio lanak, beraien kostua urbanizazio planaren 2. faseko arduradunari esleituz.*

3. *P.E.O.U. 3 San Roken, aldaketarik egitea aurreikusiz gero, aurrez aipatutako guzti hauek barneratuko dira.*

4. *Durangoko osoko bilkurak zonalde osorako (Ziritza-Bustintzatik Aramotzera) konponbide integrala diseinatzea erabakitzen du, hurrengo urbanizazio planaren faseak gauzatu arte, ingurua atonduz eta erabilera publikoa ahalbideratuz.*

5. *Udalak auzotarrekin bilera bat deituko du, edota hirigintza batzordera gonbidatu auzotarrak, beraien arazoen berri zuzenean eman ahal izateko*."

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Ziritza-Bustintza auzoko urbanizazioaren inguruko mozioa ekarri dugu. Auzo horren egoera azaltzeko argazki batzuk ekarri ditugu, ikusteko zelan geratu den urbanizazioa. Alde batean atariak daude eta ataritik landa batera irteten da. Hau da egoera eta auzotarrek beraiek azaldu dute gutun batean, irakurri egingo dut:

*andar y los coches no invadan la acera. También tienen problemas con la vegetación en toda la zona, desde Ziritza-Bustintza hasta Aramotz. El entorno está muy abandonado, y la presencia de ratas es notoria en esa zona.*

*Siendo así, presentamos esta*

*MOCIÓN:*

1. *El pleno del Ayuntamiento de Durango exige la ejecución inminente de la segunda fase de la urbanización del entorno de Ziritza (los portales traseros) al responsable de esa fase, ya que por ley debe asumir el coste.*

2. *Si no se efectúa lo anterior, el Ayuntamiento de Durango asumirá la ejecución de las obras de urbanización, y asignará los costes al responsable de la segunda fase del plan de urbanización.*

3. *Si en el P.E.O.U. 3 San Roke se previera realizar algún cambio, se incluirán las cuestiones mencionadas anteriormente.*

4. *El pleno del Ayuntamiento de Durango decide diseñar una solución integral para toda la zona (desde Ziritza-Bustintza a Aramotz) hasta que se desarrollen las fases del siguiente plan de urbanización. Se acondicionará el entorno posibilitando un uso público.*

5. *El ayuntamiento convocará a las personas vecinas a una reunión o a la comisión de urbanismo, para conocer sus problemas de primera mano*."

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: Traemos la moción sobre la urbanización del barrio Ziritza-Bustintza. Hemos traído unas fotos para ilustrar la situación del barrio, para que se vea cómo ha quedado la urbanización. En un lado están los portales, y de allí se sale a un terreno. Esta es la situación, y los propios vecinos del barrio lo han explicado en una carta. La voy a leer:

*"CARTA DE VECINOS DE ZIRITZA 7 AL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE DURANGO.*

*A quien corresponda:*

*Como bien sabrá, existe una comunidad de viviendas, exactamente 144 viviendas, allá por el barrio de San Roke de Durango conocidas oficialmente por Bustintza y Ziritza. No, no son partidos políticos que se presentan a las elecciones griegas, son vecinos de la excelentísima localidad de Durango, a la cual, los que escriben estas líneas pertenecen orgullosos.*

*Como ciudadanos de esta localidad, y en concreto de esta barriada, estamos viendo cierta dejadez por parte del consistorio a nuestras quejas y sugerencias. Llevamos año y medio lo más viviendo en este nuestro barrio, y hemos comprendido y entendido que somos nuevos y que las cosas en el ayuntamiento tienen su orden y su procedimiento, pero al no ver ningún progreso en manera y formas, nos vemos abocados a acudir a la opinión del ciudadano y a informar de la situación en la que se encuentra el barrio siendo de nueva construcción como es.*

*Disponemos de un parking cerca de nuestras viviendas y de aparcamiento externo en parte del perímetro, pero este aparcamiento sirve como disuasorio de la OTA y de zona de depósito de auto-caravanas. Parece ser que a los propietarios de estas, les molesta tenerlas aparcadas debajo de su casa y prefieren llevarlas al barrio de al lado. Sabemos que es legal, pero no deja de ser incomodo en un barrio como este, que aún tiene que crecer más, que estén ocupando aparcamiento de continuo, coches que no se usan, furgonetas que se pasan meses en el mismo lugar y auto-caravanas que aparcan durante días, semanas o meses en el lugar, cualquiera puede darse un paseo y contar estos vehículos cuando quiera.*

*Ayer mismo a un vecino llegando al portal le saludo una rata, no llegaron a intercambiar teléfonos pero si vio que se fue a esconder a la selva amazónica que tenemos a modo de jardín entre el barrio y la fundición, un perfecto criadero de fauna y flora variada el cual no está precisamente escondido y que tanto brigada, como municipal, tienen conocimiento de su existencia, por lo que quizás sea un problema de comunicación interna y no un problema de desidia por parte del consistorio. De hecho, hace poco se ha incorporado una acera nueva anexa a nuestra selva, por lo que nos atreveríamos a apostar, que incluso la sección de obras del ayuntamiento ha visto el estado de esta zona y por lo visto le debe parecer normal que la hierba en un jardín llegue a la rodilla. Será que no vive en la zona.*

*Este maravilloso jardín llega hasta nuestros portales sitos en la cara de la fundición, si, hasta el mismo portal, no hay acera y eso que como bien hemos comentado se acaba de hacer una al lado para rematar la carretera, no hay más ciego que el que no quiere ver y deja que un arquitecto priorice la estética del edificio escudándose en el límite de la legalidad y se le deje realizar unos portales sin acceso ya que lo tenemos por el interior de la plaza, portales que no nos importaba que no existieran sino van a ser funcionales ( tiene hasta portero automático y todo oye) que nos un portal por vecindario nos apañamos perfectamente, eso no es más que una falta de ética y profesionalidad por parte del que lo ejecuta y el que le deja ejecutarlo, por no hablar del maravilloso suelo de la plaza, que seguro que cumple alguna extraña normativa y que invito a que cualquier padre con hijos venga a ver y disfrutar. Nuestros críos han aprendido a no caerse y levitar, somos de la generación de la guerra de las galaxias y hemos aprendido.*

*Disponemos de contenedores de basura y reciclaje, petición a la que si se ha hecho caso y por lo que debemos felicitar al que corresponda, aunque, al ser obra nueva, se podría haber aprovechado y haber realizado un soterramiento por parte de la constructora, pero eso ya no es nuestro trabajo.*

*No se nos pase el rió del que disponemos anexo y que está perfectamente canalizado hacia un recodo que se junta con la canalización que viene de la circunvalación y parte del alcantarillado por lo que las bombas de nuestros garajes, nuevas ellas, cuando llueve en demasía, evacuan también a este recodo y ¡¡¡oh, sorpresa!!! El agua vuelve a entrar en los garajes porque llega un momento que se forma tal piscina que supera a las bocas de salida, así que ahí nos ves a los vecinos en pijama sacando los coches porque se inunda el garaje. La respuesta: "cuando se urbanice el resto que queda se corregirá el problema". También podemos esperar a que el río que pasa por Tabira sea navegable en Durango.*

*Decir también que, aunque somos conscientes de que la fundición estaba antes que las viviendas, lo cierto es que alguien ha dado permiso para hacer viviendas al lado de una fundición y que se supone, que ésta dispone de las medidas exigidas para la emisión de gases y demás. El polvo y/o arenilla que se acumula en nuestras ventanas y tendederos es bastante preocupante en color y cantidad, por lo que no estaría de más que el consistorio realizara un seguimiento y análisis del estado de las instalaciones de esta fundición e incluso se realizara un estudio del estado del aire y sedimentos, ya que, insistimos, sabemos que la fundición estaba antes, pero y alguien decide que se pueden realizar viviendas ahí y cobra sus tasas por ello, debería preocuparse de que la calidad de servicios que se le dan al ciudadano sea coherente con los tiempos en los que vivimos, ya que no solo de aceras y bidegorris nos podemos alimentar, existen más factores, que, aunque no sirven para una foto de portada, sirven para que el ciudadano disfrute por lo que se supone que paga y quiere pagar, que es vivir y disfrutar en Durango.*

*Podríamos extendernos más, pero por hoy es suficiente. Por nuestra parte, seguiremos usando los medios necesarios para que se nos escuche, e incluso decir que somos gente abierta a dialogo y comprensión e incluso a colaborar y aportar al que corresponda para que su trabajo sea lo más eficaz posible."*

Eta beste bide batzuk ere erabili dituzte, hau da, idatziak ere sartu ziren udal honetan orain dela pare bat urte eta oraindik erantzun barik daude. Beraz, horren aurrean, gu joan gara auzo horretara eta beraiekin bildu gara, eta hau guztia komentatu digute, beraien ekarpenak jaso ditugu berriz hona ekartzeko; batzordeetan planteatu ditugu gauza batzuk eta zerbait behintzat bete da.

Orain dela gutxi eskaera bat bete da: udalak itxi zuen "linea de deseo" bat ireki dute; hiru egunetan egin dute, baina berez bi urte pasatu dira eskatu zutenetik. Inaugurazioan ikusi genituen Gobernu Taldekoak; horretara joan ziren, baina herritarren kexak entzutera zuzenean ez.

Beraz, hori eginda dago eta pozten gara, baina oraindik asko geratzen da egiteko batez ere atarien parean dagoen landa horretan. Hori da momentu honetan ekarri duguna eta eskatzen duguna. Mozioan honako bost puntu eskatzen ditugu:

MOZIOAREN BOST PUNTUAK IRAKURTZEN DITU

También han empleado otros medios; en concreto, hicieron llegar un escrito a este Ayuntamiento hace un par de años y aún no han recibido respuesta. Por tanto, vista la situación, hemos ido al barrio y nos hemos reunido con ellos. Esto es lo que nos han comentado; hemos reunido sus aportaciones para traerlas aquí de nuevo. Algunas cosas las hemos planteado en las comisiones, y algo al menos se ha cumplido.

Hace poco se cumplió una de las demandas: han abierto una línea de deseo que el Ayuntamiento cerró. Lo han hecho en tres días, pero han pasado dos años desde que lo solicitaron. En la inauguración vimos a los integrantes del Equipo de Gobierno; a eso sí fueron, pero no a escuchar directamente las quejas de la ciudadanía.

Por tanto, eso está hecho y nos alegramos, pero todavía queda mucho por hacer, sobre todo en el terreno que queda frente a los portales. Eso es lo que traemos y solicitamos hoy. En la moción, la petición consta de estos cinco puntos:

LEE LOS CINCO PUNTOS DE LA MOCIÓN

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Auzo guztiek dituzte beharrak. Baieztapen hori egia da orain eta egia izango da beti. Udalaren lana ez da inoiz behin betiko amaitutzat emango inongo auzotan. Eta auzo batzuetan beti izango dira beste batzuetan baino behar handiagoak eta gai batzuk besteak baino premiazkoagoak izango dira.

Eta esaldi hori nahi adina luza dezaket eta ez nuke inoiz amaituko.

Eta beti egongo gara ados auzo guztietan edozein hobekuntza, konponketa, egokitze egitearekin, ahal bada, behar handiena duenetik hasita. Eta premia handiena duenetik ere bai.

Eta ezin gara hemen planteatutakoarekin ados ez egon. Ez horixe. Alderantziz; ados gaude zati handi batean, baina gauzak ez dira horrela egiten. Honek ez du osoko biltzarrean mozio bat aurkeztea eskatzen. Edo horrela hedabideetan batzordeetan egunero lan eginda baino oihartzun handiagoa izaten delako al da? Hori egia bada, hemen ditugu hedabideak.

Lan egin behar dugu auzo honek arreta jaso dezan –eta nik, kontu pertsonal bategatik, izan dezaket buruan beste zerbait ere– eta beste auzo guztiek arreta jasotzeko ere bai, eta ez diogu mozio honi boto bat oparituko, aurkeztu duenak hilabete bakoitzean, osoko bilkura bakoitzean, auzo bateko botoak irabazi besterik ez baitu nahi.

* 1. Alkate Ordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: EH Bilduk aurkeztu digun testuan oso adierazpen zorrotzak daude jasota eta, beraz, udal-arkitektoari eta Hirigintzako Aholkulari Juridikoari kontsulta egin diegu udala egoeraren erantzule egiten duten testuko adierazpen batzuk argitze aldera; nire txandan hitza Ivan Espinosak hartzea proposatzen dizuet, Hirigintzako Aholkulari Juridikoa da bera, eta azal dezala berak zer tarte uzten digun legeak eta gauzak nola egiten ari garen.

* Hirigintzako Aholkulari juridikoa **Espinosa Perez jaunak**: Hasteko, zehaztapen batzuk egingo dizkiot mozioaren gorputzari buruz.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Todos los barrios tienen necesidades. Esta es una afirmación cierta hoy y lo va ser siempre. Nunca la labor del ayuntamiento se dará por finalizada de forma definitiva en ningún barrio. Y siempre habrá mayores necesidades en unos barrios que en otros, y asuntos más urgentes que otros.

Y así puedo extender la frase que he iniciado, y no terminarla nunca.

Y siempre vamos a estar de acuerdo en que se acometa cualquier mejora, cualquier reparación, cualquier acondicionamiento en todos y cada uno de los diferentes barrios, y a poder ser empezando por los más necesitados. Y por lo más urgente.

Y no podemos estar en desacuerdo con lo que se plantea. Claro que no. Al contrario; estamos de acuerdo en una parte significativa, pero esto no se hace así. Esto no requiere una moción en el pleno. ¿O es porque así tiene más repercusión mediática que trabajando día a día en las diferentes comisiones? Si, es cierto. Aquí nos acompañan los medios de comunicación.

Debemos trabajar para que este barrio -al que yo por algo personal puedo tener algo más en mi mente- y todos los barrios sean atendidos, y no vamos a regalar un voto a una moción que sólo pretende por quien la presente ganar votos, simpatías cada mes de un barrio diferente, de pleno en pleno.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Ya que en el texto que EH Bildu nos presenta se hacen unas afirmaciones muy rotundas, hemos decidido consultar, tanto al Arquitecto municipal como al Asesor Jurídico de Urbanismo, para que nos aclaren determinadas afirmaciones que hacen en este texto haciéndonos responsables al ayuntamiento como tal; lo que yo propongo es en mi turno ceder la palabra a Ivan Espinosa, que es el Asesor Jurídico de Urbanismo y que nos explique cuál es el margen que la ley nos da y cómo estamos haciendo las cosas.

* Asesor Jurídico de Urbanismo **Sr. Espinosa Perez**: Voy a empezar realizando unas puntualizaciones al cuerpo de la moción.

Mozioa irakurrita, udal-Arkitektoak eta nik ikusi dugu gauza batzuk ez direla zuzenak; agian idaztean egindako akatsengatik. Bigarren paragrafoaren hasierak dio, adibidez, urbanizatu berria den lursail zatia, EH Bilduko ordezkariak aipatu duena, PU3-San Roke hiri-lurzoru finkatugabearen eremuko 2. fasean dagoen zatia dela eta, printzipioz, urbanizazio-jarduketarako programaren programazioak ez zuela planteatzen zati hori gauzatzea 1. fasea amaitu ondorengo fase batera arte.

Eremu hori hiru fasetan urbanizatua izateko dago pentsatua, hala onartu zen 2009an izapidetu zen urbanizazio-jarduketarako programan. Orain egokituta dagoen pasabide hori urbanizazio-lanen bigarren faseari dagokion behin-behineko lan bat da eta auzotarrek hala eskatuta egin da. Orain arte urbanizazio horretako lehen faseko lanak bakarrik egin dira.

Fumbarri enpresak eta babes ofizialeko etxebizitzen eraikinak mugatzen duten etorkizuneko berdegunera ematen duten atarien harira sortutako arazoei dagokienez, eraikin hori Visesa sozietate publikoak eraiki zuen eta diseinatu zutenean bazuten lehen urbanizazio-fase horren irismenaren berri; hau da, sustatzaileak bazekien orubeak zer sarbide izango zituen eta babes ofizialeko etxebizitzen orubea eta Fumbarri zatitzen dituen berdegune hori urbanizazioaren bigarren faseari dagokio.

Atari bakoitzak bi sarbide ditu; bat espazio pribatutik eta bestea eremu publikotik. Ziritza kaleko 3, 5 eta 7. atariei dagokienez, arkitektoak eta sustatzaileak bazekiten ez zutela hasiera batean sarbide egokiturik izango etorkizunean hiri-parke izango denetik. Hori esan nahi nuen mozioaren gorputzari lotuta.

Proposamenari dagokionez, hausnarketa bat egin nahi dut haren atalen inguruan. Udalari berehala gauzatuko den B fasearen arduradunaren inguruan eginiko eskaeraren inguruan argitu nahi dugu hirigintzako lanak gauzatzearen arduraduna Itun Batzarra dela. Egia da udalak batzarrari eska diezaiokeela bigarren fasea gauzatzea eta horretarako lehen urratsa dokumentu teknikoak idaztea, horiek

Leyendo la moción, tanto el Arquitecto municipal como yo, hemos percibido que hay algunas incorrecciones, quizás motivadas por error de redacción, por ejemplo en el comienzo del segundo párrafo se dice que la porción de terreno que se ha urbanizado recientemente y a las que ha hecho mención el representante de EH Bildu, en realidad es una porción de suelo que se encuentra en la fase 2 del área de suelo urbano no consolidado PU3-San Roke, y en principio, la programación realizada desde el programa de actuación urbanizadora no planteaba la ejecución de esa porción de suelo hasta una fase posterior a la culminación de la fase 1.

Esta área en concreto está pensada para ser urbanizada en tres etapas, tal y como fue aprobado en el programa de actuación urbanizadora que se tramitó en el año 2009. Ese paso ahora acondicionado se trata de una obra provisional situada en la segunda fase de las obras de urbanización que se ha ejecutado a petición de la vecindad. Hasta ahora únicamente se habían realizado obras correspondientes a la primera de las fases de esa urbanización.

En cuanto a la problemática surgida por los portales que dan a una futura zona verde que limita la empresa Fumbarri y el propio edificio de viviendas de protección oficial; ese edificio fue construido por la sociedad pública Visesa y fue diseñado con conocimiento del alcance de esa primera fase de urbanización, es decir, el promotor conocía perfectamente los accesos de los que el solar iba a disponer y esa zona verde que separa el solar de las VPO con Fumbarri corresponden a una segunda fase de urbanización.

Cada portal tiene dos accesos, uno desde el espacio privado y otro desde la zona pública. En el caso de los portales de Ziritza kalea 3, 5 y 7, el Arquitecto y el promotor eran conscientes de que no iban a disponer, en un primer momento, del acceso acondicionado desde, lo que en el futuro, será un parque urbano. Esto en cuanto al cuerpo de la moción.

En cuanto a la propuesta, queríamos hacer una reflexión sobre los distintos apartados de la misma. En cuanto a la exigencia al ayuntamiento el responsable de ejecución inminente de la fase B, queremos aclarar que el responsable en la ejecución de las obras de urbanización es la Junta de Concertación. Es cierto que el ayuntamiento puede exigir a la junta la ejecución de la segunda fase, siendo el primer paso la redacción de los documentos técnicos, su

onartzea eta uraren sektoreko baimena eskuratzea da, Larrinagatxu erreka ondoan dagoelako. Arrazoizkoa dirudi, lehenik, A fasea amaitzea –urbanizazio-lanen azken ukituak egiten ari gara– eta egia da lan horiek amaitzeko zegoen epea asko atzeratu dela zenbait faktore tarteko, baina batez ere, Itun Batzarra osatzen duten jabeek izandako finantzaketa-arazoengatik.

Udalak urbanizazio-lanak egitea bere gain hartu eta kostuak bigarren fasearen arduradunari esleitzeari dagokionez, urbanizazio-lanak geure gain hartzeko, lehenik, eremuko jarduketa-sistema aldatu beharko genuke. Orain dugun jarduketa-sistema gauzatze pribatuko araubidekoa da.

Lehen esanda bezala, izaera administratiboko itunbatzar batek kudeatzen du, baina batzarreko kideak jabeak dira; hirigintza-lan horiek udalak zuzenean egiteko, gauzatze publikoko araubidea ezarri beharko genuke. Legeak bi araubide ezartzen ditu gauzatze publikorako: desjabetze-sistema edo lankidetza-sistema. Desjabetzearen kasuan, bigarren fasean dauden lur horien guztien eraikigarritasun urbanistikoa desjabetu behar litzateke; 10 milioi euro inguru izan litezke.

Lankidetza-sistema aukeratuko bagenu, udalak sustatuko luke prozedura eta derramak jabeei bideratuko litzaizkieke; Udalak ez luke dirua aurreratu beharrik izango. Bigarren faseko urbanizazio-lanen gutxi gorabeherako kostua 3 milioi eurokoa da. Kasu honetan, haien borondatez ordainduko ez balute, badira kobratzeko formulak; adibidez premiamendu-bidea; horrek ondasunak bahitzea eta enkantea jartzea ekar lezake, baina gaur egun dugun egoera ekonomikoa kontuan hartuta, ez dago bermatuta kobratze hori egingo denik.

PU-San Roke ordenazioan izan litezkeen aldaketen aurrean zenbait gai sartzeari dagokionez, gehixeago argitu behar litzateke zertaz ari garen, baina nolanahi ere, esan beharko litzateke ordenazioko aldaketen kudeaketa aztertu egin behar dela, hala badagokio, betiere interes publikoa oinarri eta ikuspuntutzat hartuta eta hori ez zela kutsatu behar legeak kudeaketa-formulak ezartzen dizkien gaiekin.

aprobación y la obtención de la autorización sectorial de aguas por encontrarnos junto al arroyo Larrinagatxu. Parece razonable, en primer lugar, acabar con la fase A – estamos con obras de remate de la urbanización – y es cierto que estas obras tenían un plazo de finalización que se ha ido demorando mucho en el tiempo por varios factores pero fundamentalmente por los problemas de financiación que han sufrido los propietarios y propietarias que integran la Junta de Concertación.

En cuanto al apartado de que el ayuntamiento asuma la ejecución de las obras de urbanización asignando los costes al responsable de la segunda fase, para asumir la ejecución de las obras de urbanización deberíamos, previamente, modificar el sistema de actuación del área. En la actualidad, el sistema de actuación es de régimen de ejecución privada.

Como hemos dicho, está gestionado por una junta de concertación que tienen naturaleza administrativa pero que está integrado por el conjunto de la propiedad; para que el ayuntamiento pueda ejecutar esas obras de urbanización directamente, debería de modificarse a un régimen de ejecución pública. La ley establece dos regímenes de ejecución pública: sistema de expropiación o cooperación. En el caso de expropiación al ayuntamiento, debería expropiar la edificabilidad urbanística de todos esos terrenos que están incluidos en la segunda fase y podríamos estar hablando de 10 millones de euros.

Si eligiésemos el sistema de cooperación, es el ayuntamiento el que impulsa el procedimiento girando las derramas oportunas a la propiedad; el ayuntamiento no tendría que adelantar dinero. El costo orientativo de las obras de urbanización de la segunda fase es de 3 millones de euros. En este caso, si no pagaran voluntariamente, hay fórmulas para cobrar como la vía de apremio, que podría incluso derivar en el embargo de bienes y subasta de los mismos, pero con la coyuntura económica actual tampoco queda garantizado que ese cobro se vaya a producir.

Sobre incluir cuestiones ante posibles cambios en la ordenación PU-San Roke, habría que aclarar un poco más a qué nos estamos refiriendo, pero en todo caso habría que decir que la gestión de cambios en la ordenación debe estudiarse, en su caso, siempre sobre la base o el prisma del interés público, y que esto no se debería de haber contaminado con cuestiones para las que la ley establece fórmulas de gestión.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Ikusita osoko bilkuran zehar aukera daukagula hirigintza arloan Aholkulari Juridikoaren Aholkularitza izateko, eskatuko genioke geratzeko areto honetan guk ere badaukagulako beharra hitza emateko eta azalpenak emateko.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: Ya que en este pleno contamos con la ayuda del Asesor Jurídico de Urbanismo, le pedimos que permanezca aquí, porque nosotros también necesitamos cederle la palabra para que explique algunas cosas.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Ez dago inolako arazorik geratzeko, baina txanda utzi behar zaio, orain geratu den moduan.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: No hay ningún problema para que se quede, pero hay que cederle el turno, como se ha hecho ahora.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Interesgarria eta bitxia da nabarmentzea eremu hau, Herria, Aramotz, San Roke... Durangoko eremurik ahaztuenetako bat eta arreta gutxien jaso dutenetako bat izatea. Ez dago ia zerbitzu publikorik eremu horretan. Eginiko inkesten arabera, herritarren zati bat nahiko zaharra da eta, bestalde, etxebizitza berriekin jende gaztea etortzen hasi da.

Horiek dira auzo honetako bi kolektibo handiak eta hirigunera joan behar izaten dute zerbitzu gehienetarako. Gogorarazi nahi nizuen 2016ko apirilaren 19ko osoko bilkuran Herriaren Eskubideak aurkeztutako mozio bat onartu zela mugikortasun murriztuko pertsonentzako garraiobide alternatibo bat ezartzea aztertzeko, auzoak hirigunera gerturatzeko, eta oraindik ez dugu ezer egin, ez da batzordeetan landu adostu eta onartu genuen moduan.

Auzo honetan dago Durangoko auzo-elkarterik aktibo, auto-antolatu eta proaktiboenetako bat eta urte osoan zehar herritar guztientzat zabalik dauden askotariko jarduerak antolatzen dituzte modu autonomoan. Etengabeko harremana du elkarte horrek Udalarekin eta talde politiko guztiekin, salbuespenik gabe; haiek eskatu eta auzotarrekin bilerak egin izan dira zehar behar, proiektu eta abar duten jakiteko. Lan hori egin arren, ordea, beharrezko duten gutxieneko babesa eman gabe jarraitzen dugu.

Hiru data gogorarazi nahi nituzke; 2016ko abenduaren 17a, 2017ko urtarrilaren 7a eta 2017ko urtarrilaren 28a. Igaro berriak diren hiru data dira eta egun horietan, Aramotzeko herritarrak eta

* Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Es interesante y curioso reseñar que esta zona, la zona que conocemos como Herria, la zona de Aramotz, San Roke... sea una de las zonas más olvidadas y desatendidas del municipio de Durango, una zona donde apenas hay servicios públicos. Según las encuestas que se realizaron, una parte de la población es bastante mayor y, por otro lado, con las viviendas nuevas empieza a haber gente joven.

Estos son dos de los grandes colectivos que podemos encontrar en este barrio, colectivos que tienen que trasladarse al centro para la mayoría de los servicios. Quería recordar que en el pleno del 19 de abril de 2016 se aprobó una moción que presentamos desde Herriaren Eskubidea para el estudio de la implantación de una alternativa de transporte para aquellas personas con movilidad reducida y aún no hemos hecho nada, ni se ha tratado en las comisiones tal y como se quedó y se aprobó, para acercar los barrios al centro.

En este barrio existe una se las asociaciones de vecinos más activa, más auto-organizada y proactiva de Durango donde todo el año, de forma autónoma, organizan multitud de actividades abiertas a toda la ciudadanía, una asociación que continuamente está en contacto con el Ayuntamiento y con todos los grupos políticos sin excepción; ellos nos demandan y se llevan a cabo reuniones con los y las vecinas en el barrio comentando sus necesidades, sus proyectos etc. Pero, pese a esa labor, sigue sin dársele el apoyo mínimo necesario.

Quisiera recordar tres fechas; 17 de diciembre de 2016, 7 de enero de 2017, y 28 de enero de 2017. Tres fechas recientes donde los y las vecinas de Aramotz y personas de otros barrios en solidaridad con este barrio, se han encar-

Aramotzekiko elkartasunez jokatu nahi izan zuten beste auzo batzuetako pertsonek auzotarren iritziz udalari dagokion lan bat egin zuten.

Auzolanak antolatu behar izan dituzte espazioa, sasitzak, sastrakadiak, zikinkeria... garbitu eta egokitzeko eta horrek agerian utzi ditu gero eta ugariagoak diren arratoiak eta beste izaki bizidun batzuk; obrako materialen hondakindegi bat azaldu da eta beste objektu ugari ere bai. 2016ko abenduaren 20an, auzotarren Herria elkarteak, auzoaren ordezkari gisa, prentsaurreko bat eskaini zuen eta adierazi zuten Durango Udalak ahaztuak zituela sentitzen zutela; hona zer esan zuten hitzez hitz: "*Durangoko auzorik abandonatuenean bizi gara. Zergak ordaintzen baditugu, Udalak herritar guztion bizi-kalitatea zaindu behar du, gehiago inplikatu. Gurekin ez du egiten".*

Urteak daramatzate inguruari duintzeko eta garbitzeko eskatzen, urtean daramatzate ingurabideko hesi akustikoak konpon ditzatela eskatzen, erortzen ari dira-eta. Urteak daramatzate eskatzen egin ditzala URAk inguru horretan konponketak, gaizki kanalizatuta dagoelako; urteak daramatzat galdategiak ingurumen eta zarata aldetik sortzen duen kutsadura erreklamatzen; urteak daramatzat hiltegiaren garai bateko lurretan herritarren zentro bat jartzeko eskatzen eta autogestioan oinarritutako proiektu bat ere aurkeztu zuten horretarako. Ezin diezaiekegu esan, ez eta aurpegiratu ere Udalean ezer ez genekienik; utzikeriaren aurrean, auzotarrek ekin diote lanari. Uste dugu, zementu pixka bat baino gehiago behar dutela auzoan, eta epe laburrera.

* 4. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Gure Aholkulari Juridikoaren hitzak entzun eta gero, guk irizpide teknikoa aintzat hartuko dugu.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Alderdi Popularreko ordezkariak esandakoari helduko diot. Beharrak auzo guztiek dituztela esan duzu; bada, "Abereen etxaldea" parafraseatuz esango dizut, auzo guztiek dituztela beharrak, baino batzuek besteek baino gehiago; adibidez, Aramotz, Hiltegia

gado de llevar a cargo una labor que, en palabras de los vecinos, corresponde al ayuntamiento.

Han tenido que organizar "auzolanak" para limpiar y acondicionar el espacio, numerosos zarzales, matorrales, suciedad... que han llevado a la presencia, cada vez más numerosa, de ratas y otros seres vivos; existencia de vertedero con materiales de obra y un sinfín de objetos que se han ido encontrando. El 20 de diciembre de 2016, la asociación de vecinos Herria, en representación del barrio, ofreció una rueda de prensa asegurando sentirse olvidado por parte del Ayuntamiento de Durango; palabras textuales: *"Vivimos en el barrio más abandonado de Durango. Si pagamos impuestos, el ayuntamiento debería mirar por la calidad de todos los ciudadanos, implicarse más porque con nosotros no lo hace"*.

Llevan años reclamando que la zona se dignifique y se limpie, llevan años reclamando que las barreras acústicas de la circunvalación se arreglen, se están cayendo. Llevan años reclamando que URA lleve a cabo los arreglos en esa zona por estar mal canalizado, llevan años reclamando la contaminación medioambiental y acústica de la fundición; llevan años reclamando el centro cívico en los antiguos terrenos del matadero donde ellos presentaron un proyecto autogestionado. Al menos, no les podemos decir ni reprochar que en el ayuntamiento no sabíamos nada; ante la dejadez, son los propios vecinos y vecinas los que se ponen manos a la obra. Creemos que hace falta, a corto plazo, algo más que un poco de cemento en el barrio.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Tras escuchar a nuestro Asesor Jurídico abordaremos el criterio técnico.

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: Voy a empezar por el representante del Partido Popular. Ha dicho que todos los barrios tienen necesidades; pues parafraseando a "Rebelión en la Granja", todos los barrios tienen necesidades, pero algunos más que otros, y es el caso de toda la zona de Aramotz, Matadero, y

eta Ziritza-Bustintza eremu osoak. Batzordean aipatu dira beharrak; hala ere, batzordeetan ez dira erabakiak hartzen, horregatik ekartzen dira gauza batzuk osoko bilkurara.

Aholkulariak esan duena guk argi geneukan; horregatik planteatu dugu, guk ere aintzat hartzen ditugu aholkulariak planteatutako gauzak. Horregatik eskatzen genuen enpresari exijitzea, berak esan duelako, eta, bestela, udalak berak egitea, prozedura normala jarraituta edo prentsan agertu den zati hori egin den moduan.

Baina horrela egin ezin bada, badakigu prozedura ofiziala zein den eta badakigu auzotarren eskaerak zein diren ere, irakurri baititugu hamaika bider aurkeztu dituzten dokumentuak eta haiekin zuzenean ere hitz egin baitugu; badakigu zer eskaera dituzten eta batzordera eraman ditugu, baina eskaera honek beste neurri juridiko bat duenez, osoko bilkurara ekarri dugu.

Durangoko eremu abandonatuetako baterako proiektu integrala behar dela dioen ideia orokorra eskatzen dugu batez ere. Ziritza-Bustintzatik hasi eta Aramotzeraino iritsiko den birgaitze-proiektu bat behar du, arazo asko partekatu egiten baitituzte.

* 1. Alkate Ordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Pozten naiz, batetik, gauzak argi geratu direlako; izan ere, irudi hori, ezer ez egitearena, ez da benetakoa eta ez dator errealitatearekin bat. Egia da eta horretan uste dut udalbatzako kide guztiok bat gatozela, behar asko dituela auzoak eta ahal den guztia ari garela egiten.

Baina ez gaude ados gauzak nola egiten ari garen zehaztean; hau da, Foru Aldundiaren lur sail batzuk auzotarrekin garbitzea, egin zen moduan... Hori ez da Gobernu Taldeak gauzak egiteko duen modua; auzotarrekin bildu gara eta dituzten arazoen irtenbideak bilatzen ari gara irtenbide osoa eskaini ahal izateko. Askoz interesgarriagoa iruditzen zait gaia batzordeetan, lanerako mahaietan lantzea; izan ere, mozioarekin ematen ari garen

Ziritza-Bustintza. Las necesidades están comentadas en comisión; aún así, las comisiones no son ámbitos donde se decide, por eso algunas cosas vienen al pleno.

Nosotros ya teníamos claro lo que ha dicho el Asesor, por eso lo hemos planteado; nosotros también tenemos en cuenta lo que plantea el Asesor. Por eso pedíamos que se le exigiera a la empresa, porque él lo dijo; y si no, que lo hiciera el propio Ayuntamiento, siguiendo el proceso normal o como la parte que ha aparecido en prensa.

Pero si así no se puede hacer, sabemos cuál es el procedimiento oficial y sabemos también cuales son las peticiones del barrio porque nos hemos leído los documentos que han presentado mil veces y porque hemos estado hablando con ellos directamente; sabemos cuáles son las peticiones y las hemos llevado a comisión, pero ésta petición, como tiene otra envergadura jurídica la traemos al pleno.

Pedimos, sobre todo, esa idea general de que tiene que haber un proyecto integral para una de las zonas más abandonadas de Durango, necesita un proyecto de regeneración que abarque desde Ziritza-Bustintza hasta Aramotz porque muchos problemas son comunes.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Me alegro, por una parte, de que queden las cosas claras, porque dar esa imagen, en concreto, de no estar haciendo nada no es real ni se ajusta a la realidad. Sí es cierto, y en eso creo que coincidimos toda la corporación, que son muchas las necesidades que tiene el barrio y que se está haciendo todo lo que se puede.

En lo que no coincidimos es en cómo se están haciendo las cosas; es decir, ir a limpiar unos terrenos de la Diputación de la forma que se hizo con el vecindario... No es la manera del Equipo de Gobierno; se está reuniendo con el barrio y se están buscando soluciones a los diferentes problemas que hay, para poder dar una solución integral. Me parece mucho más interesante que lo trabajemos en comisiones, en mesas de trabajo, porque la imagen que se

irudiak uste dut, errealitatea hutsaldu egiten duela eta ez zait bidezkoa iruditzen. Berriro esan nahi dut, indar politiko bakoitzak erabakitzen du nola aritu nahi duen.

Gogorarazi nahi dut une honetan aurrekontuak lantzen ari garela eta hor ezar dezakegula garbi zer lehentasun ditugun eta nola landu nahi ditugun. Interesgarria iruditzen zait indar politiko guztiak, auzoko egoera aldatu ahal izateko, ados jartzea.

* 4. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Gobernu Talde bezala, gureak egiten ditugu Alderdi Sozialistaren Bozeramaleak esandako hitzak, eta berriz ere errepikatu aholkulari juridikoak esandako hitzak aintzat hartzen ditugula.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Egin diren lanak auzotarrek egin dituzte, askotan eskatu eta gero egin ez direlako, eta zinegotzi batzuk laguntzen egon gara, baina lana beraiek egin dute, eta egin dute itxaroteaz nekatuta daudelako; eta modu komunitario batean gauzak egitea ez dago txarto, baina horrek ez dio kentzen udalari berak daukan erantzukizuna eta erantzuteko beharra.

Bestalde, egia da auzoak konponbide integrala behar duela. Pasa den urteko aurrekontuetan helburu eta lehentasunen artean sartu genuen Aramotz auzoa. Gauzak egiten ari dira, baina hau ere beharrezkoa da. Guk ere aintzakotzat hartzen dugu aholkulari juridikoak esaten duena. Gauza txikiak batzordeetara eraman ditugu baina uste dugu honek behar duela mozio bat eta adierazpen formal bat.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.

está dando con la moción creo que desvirtúa un poco la realidad y no me parece justo. Insisto, cada fuerza política decide cómo colaborar.

Quiero recordar que en estos momentos estamos trabajando en unos presupuestos y que ahí podemos dejar claro cuáles son las prioridades y cómo se quiere trabajar. Me parece interesante que todas las fuerzas políticas nos pongamos de acuerdo para poder cambiar la situación del barrio.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Como Equipo de Gobierno, hacemos nuestras las palabras de la Portavoz del Partido Socialista, y repito que tenemos en cuenta lo que ha dicho el asesor jurídico.

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: De los trabajos realizados se han encargado los vecinos, porque se han pedido muchas veces y no se han hecho. Algunos concejales hemos estado allí ayudando, pero el trabajo lo han hecho ellos, y lo han hecho porque están cansados de esperar. No está mal hacer las cosas de forma comunitaria, pero eso no quita que el Ayuntamiento tenga una responsabilidad y la obligación de responder.

Por otra parte, es cierto que el barrio necesita una solución integral. En los presupuestos del año pasado, incluimos el barrio de Aramotz entre los objetivos y las prioridades. Se están haciendo cosas, pero esto también es necesario. Nosotros también tenemos en cuenta lo que dice el asesor jurídico. Las cosas pequeñas las llevamos a las comisiones, pero creemos que esto requiere una moción y una declaración formal.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.

- Kontrako botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 1 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 1 Alderdi Popularra.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

- Votos en contra: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 1 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 1 del Partido Popular.
- Abstenciones: NINGUNA.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Berriz ere bozkatu behar dugu.

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.
- Kontrako botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 1 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 1 Alderdi Popularra.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin eta Alkate andreak kalitatezko botoa erabiliz, **UKO EGITEN DU Euskal Herria Bilduk** aurkezturiko **mozioaren** testua.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Vamos a votar otra vez.

- Votos a favor: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.
- Votos en contra: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 1 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 1 del Partido Popular.
- Abstenciones: NINGUNA.

En consecuencia,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría y haciendo la Alcaldesa uso del voto de calidad, **RECHAZA** el texto de la **Moción** presentada por **Euskal Herria Bildu**, anteriormente transcrita.

**BOST.- EUSKAL HERRIA BILDU TALDEAREN MOZIOA, TRENBIDEA PERI-REN ONDASUN HIGIEZINEN ZERGARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA 2017001460, 2017KO OTSAILAREN 24KOA).**

Euskal Herria Bildu Udal Taldeko Bozeramaileak izenpeturiko mozioa, Trenbidea PERI-ren ondasun Higiezinen Zergari buruzkoa. Sarrera Erregistroa: 2017001460, 2017ko otsailaren 24koa, eta honako hau dioena:

**CINCO.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL EUSKAL HERRIA BILDU, RELATIVA AL IBI CORRESPONDIENTE AL PERI FERROCARRIL. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2017001460, DE 24 DE FEBRERO DE 2017).**

Dada cuenta de la Moción presentada por el Grupo Municipal Euskal Herria Bildu, relativa al IBI correspondiente al PERI Ferrocarril, con Registro de Entrada nº 2017001460, de 24 de Febrero de 2017, del tenor literal siguiente:

"Aurreko urtean, Higiezinen gaineko Zergaren inguruan eztabaidatu genuen Durangon. Eztabaida horretan, bi tipo ezberdin aplikatzea onartu zen. Agerian geratu zen gehien daukanak gehiago ordaindu behar duela, baina era berean zailtasunak agertu ziren tipo ezberdinen artean balio-muga non jarri. Edozein kasuan oso zaila da herritarrei, nahiz eta balio handiko higiezinen jabeak izan, azaltzea tipo ezberdinak ordaindu behar direla eta era berean, gure herriaren erdian dauden 60.000 m2 urbanizagarrien jabeari euro bat ere ez kobratzea.

Durangoren erdian, bere garaian tren geltokia, tailerrak eta ibilbidea izandako terrenoak, gaur egun ez baitute tren azpiegiturarik jasotzen, haatik lur-zoru horiek urbanizagarriak dira, hain zuzen ere 554 etxebizitza eraikitzea onartuta dagoelako bertan, 2006 urtean onartutako plan bereziaren ondoren. Eta zehazki, 2012 urtean, trena lur azpitik ibiltzen hasi zen, beraz historikoki tren geltokia eta azpiegiturak zirenak libre geratu ziren.

Ondasun Higiezinen gaineko Zergari Buruzko 4/2016 Foru Arauak jasotzen du, zerga ordaintzeko salbuetsita egongo direla, trenbideek atzemandako lurrak eta lur horietan dauden eraikinak, baldin eta geltokiak edo biltegiak badira edo lineak ustiatzeko ezinbestekoa den zerbitzuren baterako behar badira. Durangon 2012 urtera arte egoera hori eman izan da, baina gaur egun zeharo aldatu da.

Era horretan, Bizkaiko higiezinen foru katastroari buruzko 3/2016 Foru-Arauak, argi eta garbi esaten du nahitaezkoa dela ondasun higiezinak Higiezinen Foru Katastroan sartzea eta handik ateratzea, bai eta higiezinon ezaugarrien aldaketak eranstea ere. Eta kasu honetan, ezaugarrien aldaketa hori ez da komunikatu. Horregatik gaur egun, lurzoru horien jabeak ez du zergarik ordaindu. Aipatutako foru-arauan esaten da ere lurzoruaren (higiezinaren) titularrek deklaratu egin behar dituztela haien titulartasuneko ondasun higiezinetan gertatzen diren aldaketa fisiko, juridiko edo ekonomiko guztiak. Beraz, argi dagoenez, kasu honetan titularrak ez du deklaraziorik egin eta lurzoru horrek trenbide azpiegitura balitz bezala izendatuta jarraitzen du.

"El año pasado en Durango debatimos sobre el Impuesto de Bienes Inmuebles. En ese debate se acordó aplicar dos tipos diferentes. Resultó evidente que las personas que poseen más bienes deben pagar más, pero asimismo hubo dificultades para fijar el límite del valor de los diferentes tipos. En todo caso, es muy difícil explicar a la ciudadanía -incluso a las personas propietarias de inmuebles de gran valor- que hay que pagar diferentes tipos, y, a su vez, no cobrar nada a la entidad propietaria de los 60.000 m2 urbanizables que se encuentran en el centro de nuestro pueblo.

En el corazón de Durango, el espacio donde se ubicaban la estación de tren, los talleres y las vías, hoy en día no acoge ninguna instalación ferroviaria, y, por consiguiente, esos terrenos son urbanizables. En el plan especial aprobado en el año 2006 se acordó construir 554 viviendas en ese solar, y desde 2012, cuando el tren comenzó a utilizar las vías soterradas, el terreno que históricamente han ocupado la estación y las infraestructuras ferroviarias está libre.

La 4/2016 Norma Foral sobre el Impuesto de Bienes Inmuebles dispone estarán exentos de pagar el impuesto los terrenos ocupados por las líneas de ferrocarriles y los edificios enclavados en los mismos terrenos, que estén dedicados a estaciones, almacenes o a cualquier otro servicio indispensable para la explotación de dichas líneas. Esa era la situación de Durango hasta 2012, pero hoy en día ha cambiado totalmente.

Asímismo, la Norma Foral 3/2016 sobre el catastro foral de los inmuebles de Bizkaia expone claramente la obligatoriedad de que los bienes inmuebles sean incluidos y excluidos del Catastro Foral, así como que sean incorporadas las alteraciones de sus características. En este caso, no se ha comunicado el cambio de las circunstancias. Es por eso que a día de hoy la entidad propietaria de esas tierras no ha pagado ningún impuesto. La mencionada norma foral indica también que las personas titulares están obligadas a declarar todos los cambios físicos, jurídicos o económicos que se produzca en los bienes inmuebles de su titularidad. Así pues, queda claro que en este caso la entidad titular no ha realizado ninguna comunicación, y esa parcela sigue designada como si todavía se encontraran infraestructuras ferroviarias en ella.

Guzti hori kontuan hartuta, Durangoko udal batzarrak hurrengo erabakia hartzen du:

1. Bizkaiko Diputazioari, trenbide, geltokia eta tailerrak izandako lurzoruaren egoera fisiko eta juridiko berriaren komunikazioa helaraziko dio.

2. Bizkaiko Diputazioari eskatzen dio, aurreko puntuan aipatutako egoera kontuan harturik, abiarazi dezala Bizkaiko higiezinen foru katastroari buruzko 3/2016 Foru-Arauak higiezinen aldaketa fisiko eta erabilera aldaketaren ondorioz jasotzen duen prozedura, lurzoru horri dagokion izendapena emateko eta horren ondorez higiezinen zerga kobratu ahal izateko.

3. Bizkaiko Diputazioari ere eskatzen dio, abiarazi dezala aipatutako arau berean aurreikusten den prozedura zigortzailea. Zehazki, lurzoru horren jabearen kontra zegokion egoera fisiko eta erabilera aldaketaren deklarazioa ez aurkezteagatik.

Considerando todo lo expuesto, la corporación municipal de Durango acuerda:

1. Trasladar a la Diputación Foral de Bizkaia la comunicación de la nueva situación física y jurídica del terreno antes ocupado por las vías ferroviarias, la estación y los talleres.

2. Solicitar a la Diputación Foral de Bizkaia, considerando la situación mencionada, que inicie el proceso recogido en la Norma Foral 3/2016 para los casos de cambios físicos o cambios de uso de los inmuebles, para así poder asignar a ese terreno la designación que le corresponde, y, en consecuencia, poder cobrar el impuesto sobre inmuebles.

3. Solicitar, asimismo, a la Diputación Foral de Bizkaia, que inicie el proceso sancionador previsto en la mencionada norma foral. Concretamente, el proceso en contra de la entidad propietaria del terreno, por no haber presentado la declaración de los cambios físicos y de uso.

EZTABAIDA-TARTEA ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* <u>**Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**</u>: Gai honetan badaude ezaugarri batzuk, eta ondo etorriko zaizkigu hirigintza Arloko Aholkulari Juridikoaren azalpenak; lehenengo txanda honetan, prestatuta daukadan azalpena emango dut, eta, bigarren txandan, berari emango diot hitza gai zehatz baten inguruan, eta berak erabakiko du erantzun edo ez.

Berriz ere IBIaren gaia ekartzen dugu osoko bilkura honetara, Peri Ferrocarril bezala ezagutzen diren trenbide zaharreko lurzoruaren jabeak, ETS enpresa publikoak hain zuzen, ez du IBIa ordaintzen. IBIaren inguruko eztabaida izan genuenean konturatu ginen Durango erdian lurzoru bat dagoela, higiezina dena eta ezaugarri urbanoak dituena eta ez duena IBIa ordaintzen.

Guri oso zaila egiten zaigu herritarrei azaltzea beraiei igo egiten zaiela zerga hau eta herriaren erdian urbanoa den lurzorua daukan enpresa publiko

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal <u>**Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**</u>: Este asunto tiene unas características determinadas, y nos van a venir bien las explicaciones del Asesor Jurídico de Urbanismo. En este primer turno, voy a explicar lo que tenía preparado; en el segundo turno, en cambio, le cederé la palabra para hablar de un tema concreto, y que él decida si quiere contestar o no.

Una vez más, hemos traído al pleno el asunto del IBI. El dueño del terreno donde estaba el antiguo ferrocarril —conocido como Peri Ferrocarril—, es decir, la empresa pública ETS, no paga el IBI. Cuando tuvimos el debate sobre el IBI, nos dimos cuenta de que en el centro de Durango hay un terreno inmueble con características urbanas que no paga el IBI.

A nosotros nos resulta muy difícil explicar a la ciudadanía que a ellos se les sube ese impuesto y que a una empresa que tienen un terreno urbano en el centro del pueblo no le cobramos

bati ez diogula zerga berdina kobratzen. IBIaren inguruko eztabaidan guk horren inguruko galdera egin genuen, eta jaso genuen erantzuna, beste askotan bezala, lekuz kanpo egon zen. Alde batetik, jelkideen Bozeramaleak esan zidalako ni legebiltzarkide izan naizenez jakin beharko nukeela administrazio publikoaren jabetzak ez duela IBI zerga ordaindu behar.

Esan behar dut horrek ez duela zerikusirik, IBI zerga Foru Aldundiak ezartzen duelako eta gainera hori ez dela horrela; administrazio batzuk lurzoru batzuengatik ez dute IBI zerga ordaintzen, baina beste batzuengatik bai, eta hori arauan jasota dago. Ez bakarrik foru arauan, gure ordenantzan ere jasota dago, gure IBIaren inguruko ordenantza fiskaleko 4.artikuluan esaten da: *“katastroaren ondorioetarako, eta beraz, zerga honen ondorioetarako, hiri-ondasun higiezintzat hartuko da hiri-lurzorua eta hiri-lurzoru izango dira hirigintza-plangintzan hiri-lur gisa sailkatutako lurrak".*

Kasu honetan, PERI Ferrocarril bezala ezagutzen dugun lurzorua “hiri-lur gisa dago sailkatuta”. Beraz, alde horretatik argi dago. Baina, badaezpada, joan behar gara salbuespenetara, eta hor badago zerbait.

6.artikuluak zera esaten du: *“Salbuetsita egongo dira ondorengo ondasun hauek: estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Bizkaiko lurralde historikoaren edo tokiko erakundeen jabetzakoak izan eta zuzenean defentsa nazionalari, herritarren segurtasunari eta hezkuntza eta espetxe arloko zerbitzuei lotuta daudenak”.* Beraz, puntu honetan ez da salbuespena sartzen.

Badago beste puntu bat esaten duena era berean salbuetsita egongo direla *“trenbideek eta geltoki, biltegi edo linea horiek ustiatzeko ezinbesteko diren beste edozein zerbitzutarako erabiltzen diren eraikinek hartzen dituzten lurrak".*

Argi dagoenez, lurzoru hori bere garaian okupatuta egon zen, baina gaur egun ez; trena, zorionez, berandu eta koste handi batekin, lurperatu egin zen, eta azalean geratu diren lurzoruak, guk daki-

el mismo impuesto. Cuando se debatió sobre el IBI, formulamos una pregunta relacionada con ese tema, y como muchas veces ocurre, la respuesta que recibimos estuvo fuera de lugar. Por una parte, la Portavoz del PNV me dijo que, puesto que he sido parlamentario, debería saber que no se paga IBI por las propiedades de la administración pública.

Tengo que decir que eso no tiene nada que ver, porque el IBI lo establece la Diputación Foral, y además no es así. Algunas administraciones no pagan IBI por ciertos terrenos, pero por otros sí, y eso está recogido en la norma. No solo en la norma foral correspondiente, sino también en nuestra ordenanza. Esto es lo que se establece en el artículo 4 de nuestra ordenanza fiscal sobre el IBI: *“a efectos catastrales y, por tanto, del presente impuesto, tendrá la consideración de bien inmueble de naturaleza urbana el suelo urbano, entendido como tal el suelo clasificado por el planteamiento urbanístico como urbano”*.

En este caso, el terreno que conocemos como PERI Ferrocarril “está clasificado como suelo urbano”. Eso queda claro, por tanto. Pero por si acaso, debemos reparar en las excepciones, y ahí sí se menciona algo.

Esto es lo que se establece en el artículo 6: *“Gozarán de exención los siquientes bienes: los que sean propiedad del estado, de la comunidad autónoma del País Vasco, del territorio histórico de Bizkaia o de las entidades locales y estén directamente afectos a la defensa nacional, la seguridad ciudadana y a los servicios educativos y penitenciarios”.* Así pues, en este punto no se incluye esa excepción.

Según otro punto, también estarán exentos *“los terrenos ocupados por las lineas de ferrocarriles y los edificios enclavados en los mismos terrenos que estén dedicados a estaciones, almacenes o cualquier otro servicio indispensable para la explotación de dichas líneas”.*

Está claro que ese terreno estuvo ocupado en su día, pero no en la actualidad. Afortunadamente, el tres se soterró, aunque tarde y con gran coste. Por tanto, que nosotros sepamos y

gunez eta arau honen arabera, IBIa ordaindu behar dute.

Inork ez duenez kalkulurik egin, -hau da, zenbat ordaindu beharko lukeen ETSk lurzoru horrengatik- guk atera ditugu balio katastralak, eta horren arabera kalkulatu dugu horrelako lurzoru baten jabeak zenbat ordaindu beharko lukeen: gutxi gorabehera 50.000 euro urtean, gaur egun daukagun araudiaren arabera.

Beraz, gure mozioarekin eskatzen duguna da Foru Aldundiari komunikatzea zein den lurzoru horren egoera fisiko eta juridikoa gaur egun, eta beharrezkoak diren aldaketak egin ditzala guk IBIa kobratu ahal izateko.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Gauzatxo bat argitzearren: lehenengo aurkezpenean, talde batek aurkezpena egiten duenean mozio bat sartu duelako, ez dago eperik; bost minutu izaten dira txandan sartuz gero.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Berriro zerga honen inguruan ari gara eta egia da sakon jorratu zuela gaia EH Bilduko bozeramaileak abenduaren 29ko osoko bilkuran eta uste dut orduan adierazi zuena eta mozio honek ere adierazten duena zera dela, ordaindu behar lukeen norbait ez dela ordaintzen ari. Durangarrei jakinarazi behar genieke EH Bilduren bertsioaren aurkako bertsioek ere badituztela arrazoiak; kasu honetan foru-arauak betetzea.

Orain arte Alderdi Popularraren iritzi gisa aipatu ditudan gauza horiek EAJrekin eta PSOErekin parteka ditzakegula. Beraz, mozio alternatibo bat prestatu dugu. Irakurtzera noakizue:

*"Lursailak trenbideari lotuta egon direnez, historikoki lur horiek OHZ ordaintzeaz salbuetsita egon dira. Gainera, trenbidea lurpean egoteak ez du esan gura lursail horiek legez trenbide-erabilerarekin lotuta ez daudenik.*

*Lotura hori eteteko edo desafektazioa gauzatzeko, lehenbizi, Eusko Jaurlaritzak bere iritzia eman behar du trenbideko lursailen desafektazioari buruz.*

según esa norma, se debe abonar el IBI por el terreno que queda en la superficie.

Dado que nadie ha hecho ningún cálculo —es decir, cuánto debería pagar ETS por ese terreno—, hemos sacado los valores catastrales y con ellos hemos calculado cuánto tendría que pagar el dueño de un terreno como ese: aproximadamente, 50.000 euros al año, de acuerdo con la normativa actual.

Por lo tanto, lo que solicitamos a través de la moción es que se le comunique a la Diputación Foral cuál es la situación física y jurídica actual de ese terreno, y que haga los cambios pertinentes para que podamos cobrar el IBI.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Quiero aclarar un detalle: en la primera parte, cuando un grupo lleva a cabo una exposición porque ha traído una moción, no hay límite; cuando se empieza con los turnos, el máximo es de cinco minutos.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Nuevamente nos ocupa este impuesto, y es cierto que este tema se tocó de forma muy significativa en el pleno del 29 de diciembre por parte del Portavoz de EH Bildu, y creo que lo que daba a entender entonces y lo que se viene a querer dar a entender con esta moción es que alguien que debería de estar pagando no lo está haciendo. Conviene dar a conocer a los durangueses que las versiones contrarias a las de EH Bildu también están motivadas por motivos, en este caso, de cumplimiento de normas forales.

Estas cosas que hasta ahora he mencionado como opinión del Partido Popular podemos compartirlas con EAJ-PNV y con el PSOE, por lo que hemos elaborado una moción alternativa que paso a leerla:

*"Por su afectación al uso ferroviario son terrenos que han permanecido históricamente exentos del Impuesto sobre Bienes Inmuebles. Además, el soterramiento no implica la desafectación al uso ferroviario de dichos terrenos.*

*Para producirse la desafectación se requiere en primer lugar que el Parlamento Vasco se pronuncie al respecto. Sería el comienzo de un*

*Orduan hasiko litzateke hirigintza transformazioko prozesua arlo juridikoan, lursailaren ordenamenduarekin eta erabileren adskribatze berriarekin. Horrez gain, birpartzelazio prozesua hasiko litzateke, Eusko Jaurlaritzak berak bultzatuta. Izan ere, erkidego mailako jabetza publiko bati buruz gabiltza berbetan; Durangoko Udalari proiektua onartzeko lana egitea baino ez dagokio.*

*Gainera, gogoratu behar dugu gaur egun Euskal Trenbide Sarearen titulartasunpean dagoen espazio osoa ez dela OHZren eraginpean egongo. Izan ere, trenbide-erabilera izaten jarraituko dute justu lurperatutako trenbidearen gainean dagoen lurrak, segurtasunerako tarteak eta tren geltoki osoak. Gainera, parke publikora bideratutako lursailak ere (50.000 m2) ez dira OHZren eraginpean egongo, espazio horren titularra udala delako. Arrazoi horiengatik, ezin da kalkulu sinple bat egin eta lau urtez biderkatu erakunde autonomikoaren jabegoan dauden ondasun higiezin guztiei dagozkien kuotak, EH Bilduk bere mozioan egin duen bezala.*

*Hori guztia kontuan hartuta, Durangoko Udalak honako konpromisoa hartzen du:*

- *Aipatutako birpartzelazioa onartzen denean eta irmotasuna hartzen duenean, berehala lursailen konfigurazioa aldatu dela jakinaraztea katastroari; horrela, katastroak OHZren erroldan aldaketa egin ahalko izateko."*

* 1. Alkate Ordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Asko poztuko ginateke EH Bilduk arrazoia balu eta kantitate horiek kobratu ahal bagenitu, baina oso bestelakoa da errealitatea. Erabilera-aldaketa horiek eginda ere, aintzat hartu behar da lurperatutako trenbidearen gainean dagoen lurra ez dela aldatuko, alboko segurtasunekoa ere ez dela aldatuko, eta geltokia, osotasunean, ere ez. Sentitzen dut, baina esan behar dizuet errealitatearekin bat ez datorren kalkulu bat egin duzuela.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Egia da desafektazioa gertatu behar dela, baina egia da, baita ere, lau urtetik gora daramatzagula eta ez

*proceso de transformación urbanística en el ámbito jurídico mediante la ordenación del terreno y la nueva adscripción de los usos, y de un proceso de reparcelación que debe ser impulsado por parte del Gobierno Vasco. Estamos hablando de dominio público autonómico, y en el que el Ayuntamiento de Durango únicamente ejerce la labor de aprobación de dicho proyecto.*

*Una vez sea aprobada dicha reparcelación y adquiera firmeza, la nueva configuración de las fincas resultantes habrá de ser comunicada al Catastro, quien deberá plasmar la modificación en el padrón del Impuesto, toda vez que es una competencia exclusiva suya. Y además sabemos que, después de ello, no toda la superficie actualmente de titularidad de Euskal Trenbide Sarea va a estar sujeta al IBI, sino que la franja de superficie bajo la que discurre el tren y la adyacente de seguridad, así como la estación casi en su totalidad seguirán adscritos al uso ferroviario, razón por la cual no se puede hacer un cálculo simple de multiplicar por cuatro años las cuotas derivadas de todos los inmuebles propiedad del ente autonómico como establece EH Bildu en su moción.*

*En Consecuencia y por todo ello el Ayuntamiento de la Villa de Durango se compromete a:*

- *Comunicar inmediatamente la nueva configuración de las fincas al catastro, en cuando dicha reparcelación sea aprobada y adquiera firmeza, para que el Catastro plasme la modificación en el padrón del impuesto."*

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Estaríamos encantadas de que EH Bildu tuviera razón para poder cobrar esas cantidades, pero la realidad es bien diferente. Aun cuando se den esos cambios de uso, y aquí tenemos que tener en cuenta que la franja de superficie bajo la que discurre el tren no va a cambiar, la adyacente de seguridad tampoco va a cambiar, la estación en su totalidad tampoco. Siento comunicarles que han hecho un cálculo que no corresponde con la realidad.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Si bien es cierto que se tiene que producir una desafección, también es cierto que lleva-

dugula honen inguruan ezer egin. Eusko Jaurlaritzaren hitzarmen bat iritsi zitzaigun irakurtzeko. Ez da izan ez eztabaidarik, ez proposamenik, ez aldaketarik, ez iritzirik. Badakigu badela galtzen ari garen diru-biltze bat, badakigu kanpoan zer geratuko litzatekeen, baina badakigu, halaber, leku askotan –garai bateko kotxe-tokiak, saltokiak– funtzionatzen ari direla, baina ez direla ordaintzen ari.

Iritzi asko daude, zenbaki- eta lege-dantza handia daukagu, baina ez dugu mugimendurik ikusten. Esan genuen azaroko osoko bilkuran; lursail horiek geldituta daude eta ez dirudi haiekin ezer egiteko asmorik dagoenik. Baina galtzen dutenak durangarrak dira; izan ere lur horiek OHZ ordaintzen ez duten bitartean, geure patrikatik jarri beharko dugu dirua.

Mozio bat onartu zen balioen txostena berraztertzea eskatzeko. Txosten horrek, seguru asko, lur horiek eta OHZren eraginpeko eremuen balorazioak jaso beharko lituzke. Bataren zein bestearen zain jarraituko dugu eta mugimenduren bat izatea espero dugu, lanari benetan heltzea.

* 4. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Harritu egiten naiz Herriaren Eskubidearen Bozeramaleak esandakoa entzundakoan. Zenbakien dantzaren inguruan hitz egiten du, gaia hemen dagoela berriz esaten du, eta lan egin beharra dagoela esaten du; honekin ematen du zuek ez daukazuela lan egiteko asmorik, besteek egin dezatela. Ez dakit zertara datorren hona beste batzuen mozio alternatiboez mespretxuz hitz egitea -edo hori iruditu zait niri behintzat- denok egiten ditugunean horrelakoak osoko bilkura honetan.

Guk ongietorria ematen diogu mozio alternatiboari eta gure aldeko bozka emango diogu, batzuek lana egin beharra dagoela esaten dutelako baina guk lana egin egiten dugulako eta ez besteei eskatu.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Egia da hitza eman behar niola Aholkulari Juridikoari, baina hainbat gauza nik erantzun behar ditut.

mos más de cuatro años y no se ha hecho nada al respecto. Hace un tiempo se nos presentó un convenio por parte del Gobierno Vasco para su lectura porque no ha habido debate, ni propuesta, ni alteración u opinión. Sabemos que ahí hay una recaudación que se está perdiendo, sabemos lo que se quedaría fuera, pero también sabemos que hay muchas zonas, antiguas cocheras, comercios que están funcionando pero que no están pagando.

Vemos muchas opiniones, mucho baile de cifras y leyes, pero lo que no vemos es movimiento. Ya lo comentamos en el pleno de noviembre; estos terrenos están parados y parece que no hay intención de hacer nada con ellos. Pero los que pierden son los durangueses y duranguesas, porque mientras estos terrenos sigan sin pagar IBI tendremos que aportarlo del bolsillo.

Se aprobó una moción para pedir una revisión de la ponencia de valores, una ponencia que, probablemente debería de recoger estos terrenos y las valoraciones de las zonas que se han visto afectadas por el IBI. Seguiremos esperando tanto a lo uno como a lo otro, esperaremos que haya algún movimiento, que nos pongamos de verdad a trabajar.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Me sorprende lo que ha dicho el Portavoz de Herriaren Eskubidea. Habla de un baile de cifras, de que estamos tratando este asunto de nuevo, y dice que hay que trabajar en ello. Da la sensación de que no tienen intención de trabajar; que lo hagan otros. No sé a qué viene hablar con desprecio de las mociones alternativas de otros grupos —eso me ha parecido a mí, al menos—, cuando en realidad todos las hacemos en este pleno.

Le damos la bienvenida a la moción alternativa y votaremos a favor, porque algunos dicen que hay que trabajar, pero nosotros directamente nos ponemos a ello y no se lo pedimos a los demás.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: Es verdad que tengo que cederle la palabra al Asesor Jurídico, pero hay algunas cosas a las que debo responder yo.

Egin duzuena oso argi dago eta, zoritxarrez, durangarren interesa kudeatzen dutenek horrelako jarrera bat hartzea nahiko tristea da. Hartu ahal zenituzten zergen arloan indarrean dauden arau foralak, eta erabili duzue trenbidearen azpiegituraren inguruko araudia esateko hor betidanik egon dela afekzio bat zerbitzu konkretu batera eta ez denez egon desafekzio formalik, Eusko Jaurlaritzaren erabaki bat horren inguruan desafektatzeko, lotzen duzue desafekzio formal hori zerga bat ez ordaintzeko.

Lo que habéis hecho está muy claro, y desgraciadamente, es bastante triste que las personas que gestionan los intereses de los durangueses adopten esa actitud. Se podrían haber elegido las normas forales vigentes en el ámbito fiscal; sin embargo, en su lugar habéis empleado la normativa sobre el ferrocarril para decir que ahí siempre ha habido una afección para un servicio concreto y que, dado que no ha habido desafección formal, es decir, dado que el Gobierno Vasco no ha tomado la decisión de desafectarlo, relacionáis la desafección formal con no pagar un impuesto.

Zuen mozioan esaten duzue *"desafektazioa egiteko, lehenik, horri buruzko iritzia eman behar du Eusko Jaurlaritzak. Hori izango litzateke arlo juridikoan eraldatze urbanistikoa egiteko prozesuaren hasiera".* Arlo juridikoan lur horren eraldatze urbanistikoa egiteko prozesua 2006an egin zen.

En la moción decís que *"para producirse la desafección se requiere en primer lugar que el Parlamento vasco se pronuncie al respecto. Sería el comienzo de un proceso de transformación urbanística en el ámbito jurídico".* El proceso de transformación urbanística en el ámbito jurídico de ese suelo se dio en el año 2006.

Plan berezi hura onartu genuenetako batzuk hemen gaude. Plan berezi hark trenbidearena ez den erabilera jasotzen du; eremu horretan, une honetan hirigintzan diru gehien ematen duen erabilera dago; etxebizitzena: 554 etxebizitza, hain zuzen. Beraz, arlo juridikoan egina dago eraldatze urbanistikoa. Oraindik egin gabe dagoen hirigintzako antolamendu xehatuaren beste irudi bati heldu nahi diezue, birpartzelazioari, baina egituraren arlokoa egina dago jada eta, beraz, eraldatze urbanistikoa egina dago.

Algunas de las personas que aprobamos ese plan especial estamos aquí, un plan especial con un uso que no es de ferrocarril, el uso predominante en ese área es el más lucrativo que puede existir en urbanismo en estos momentos; el residencial, 554 viviendas. Por lo tanto, la transformación urbanística en el ámbito jurídico está dada. Os queréis agarrar a otra figura de urbanismo de ordenación pormenorizada que todavía no se ha hecho, que es la reparcelación, pero lo estructural ya está hecho, y, por lo tanto, la transformación urbanística está realizada.

Hala ere, honako hau eta antzeko gauzak idazten dituzue eta adierazten diguzue azken lau urteetan hor izan den akats bat ez duzuela zuzendu; ez duzue ezer egin. Zuen mozioa hartu eta ontzat emanda, garbi ikusten da ez duzuela ezertxo ere egin OHZ kobratu ahal izateko. Baina ez da hori bakarrik. Hemen diozuena ez da egia. Onartuta al onartu gabe dago etxebizitzei lotutako irabazizko erabilera eta 554 etxebizitza jasotzen dituen plan berezia?

Sin embargo, escribís cosas como ésta y nos queréis dar a entender que un error que acontece durante los últimos cuatro años no lo habéis corregido; no habéis hecho nada, incluso cogiendo vuestra moción, dándola por buena, deja a las claras que no habéis hecho absolutamente nada para poder cobrar el IBI. Pero es que además, no es cierto lo que decís aquí. ¿Está aprobado o no está aprobado un plan especial con un uso lucrativo residencial y 554 viviendas?

Gustatuko litzaidake erantzuna jasotzea. Durangarrei esan nahi diezue ezin dugula OHZ bat kobratu, baina norbaitek eraiki ditzakeela 554 etxebizitza lurzoru horretan. Lurzoru horren jabeak saldu lezake irabazizko erabilera hori eta irabazizko erabi-

Me gustaría que me respondierais, le queréis decir a los durangueses y duranguesas que no podemos cobrar un IBI pero hay alguien que puede construir 554 viviendas en ese suelo. El propietario de ese suelo ¿podría vender ese uso

lera horrekin negozioa egin, baina ezin diogu OHZrik kobratu lurzoru horregatik? Nolanahi ere, foru-araudiak dio hiri-lurra dela, hiri-ondasun higiezin bat dela, eta salbuespenak aplikatzeari lotuta hau aipatzen du: "trenbideek eta han finkatutako eraikinek hartutako lurrak, eta ez horien eraginpekoak".

Ez duzue ezer egin lurzoru horretan jada egina dagoen aldaketa urbanistikoa juridikoki mugitzeko. Orain osoko bilkura batera etorri eta diozu Eusko Jaurlaritzari dagokiola hori egitea. 50.000 euroak kobratu eta durangarrentzat izango lirateke eta ez Eusko Jaurlaritzarentzat, ez eta Foru Aldundia rentzat ere.

* 1. Alkate Ordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Diru-kantitate hori kobratu behar dugula eta guri dagokigula esaten jarraitu nahi baduzue, aurrera, baina egin dituzun kontu horiek ez dira zuzenak. Gustatu ez zaizuen testu hau ez da Alderdi Popularrari edo Eusko Alderdi Jeltzaleari bururatutakoa zerbait; ez, kontua da Udaleko teknikariei, esku-hartzaileei eta arkitektoari galdetu diegu eta egoera hau dela esan digute, ez da gure burutazioa. Egin dituzun kontu horiek ez dira errepikatzearen poderioz benetako bihurtuko.

* 4. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Euskal Herria Bilduren Bozeramaileak ondo daki ezin daitezkeela kontu horiek egi bihurtu. Etorri gaitezke hona eta hitz demagogoak errepikatu, egin nahi dugun guztia egin dezakegu hemen, baina egia ez dena ez da egi bihurtuko.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Nahiko bitxia da entzutea zuen mozioa ez dela inolako okurrentzia, teknikoei galdetu diezuela. Arkitektoari, aholkulari juridikoari... eta nik, zuen mozioan, irakurri dut "Katastroari finken konfigurazio berriaren berri berehala ematea". Konfigurazio berria? Baina zertaz ari gara? 2006tik onartuta dagoen plan berezi bat dugu eta 2012tik trena, Durangon, ez da gainetik igarotzen. Zergatik ez duzue orain arte aurkeztu? Nik uste EH Bilduren mozioagatik dela, edo agian, herenegun hasi al zen trena lurpetik igarotzen?

lucrativo y podría hacer negocio con ese uso lucrativo; pero, no le podríamos cobrar el IBI por ese suelo? De todas maneras, normativa foral dice que es un suelo, un bien inmueble de carácter urbano, y a la hora de aplicar exenciones dice "los terrenos ocupados, que no afectados, por las líneas de ferrocarril y los edificios enclavados".

No habéis hecho nada por mover jurídicamente una alteración urbanística que ya se ha dado en ese suelo. Ahora venír a un pleno a decir que es el Gobierno Vasco el que lo tiene que hacer. Los 50.000 euros los cobraríamos y serían para los durangueses y duranguesas y no para el Gobierno Vasco o la Diputación.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Si queréis seguir insistiendo en que tenemos que cobrar esa cantidad de dinero y que nos corresponde, seguid, pero esas cuentas que hacéis no son reales. Este texto que tampoco os ha gustado no es algo que se le haya ocurrido al Partido Popular o al Partido Nacionalista Vasco; no, lo que pasa es que hemos preguntado tanto a la parte técnica de este ayuntamiento, a intervención y al arquitecto municipal, y esto es lo que nos dicen que hay, no es una ocurrencia. No por mucho repetir esas cuentas que habéis hecho se van a convertir en realidad.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: El Portavoz de Euskal Herria Bildu bien sabe que todo eso no se puede convertir en verdad. Podemos venir y repetir palabras demagógicas, podemos hacer lo que se quiera, pero lo que no es cierto no se puede convertir en verdad.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: Resulta bastante curioso escuchar que vuestra moción no es ninguna ocurrencia, que habéis preguntado a los técnicos: al arquitecto, al asesor jurídico... Sin embargo, en vuestra moción he leído lo siguiente: "Comunicar inmediatamente la nueva configuración de las fincas al catastro". ¿La nueva configuración? Pero, ¿de qué estamos hablando? Si tenemos un plan especial aprobado desde el año 2006 y el tren no pasa en Durango por encima desde el año 2012. Hasta ahora, ¿por qué no habéis presentado? Yo creo que es por la moción de EH Bildu, o es que ¿el tren ha empezado a pasar soterrado antes de ayer?

Nik ez dakit guk egindako kalkuluak ondo dauden ala ez, ekonomikoki ez delako erraza arau forala hartzea eta bertan dauden bariante guztiak gehitzea. Guk argi daukagu oinarrian zer dagoen, eta da azalean geratzen den lurzoru guzti horrengatik ordaindu beharko luketela. Hemen esan nahi dugu lur azpian dauden taberna eta komertzioek ere ordaindu behar dutela IBIa, eta ez dutela ordaintzen. Faltan botatzen dugu zuek azaltzea ea zergatik ez dituzuen kontu horiek egin, zergatik gaur esaten diguzuen guk egindako kalkuluak txarto daudela eta zuek ez duzuen esaten benetan zenbat izango den.

No sé si los cálculos que hemos hecho son correctos o no, porque en términos económicos no es fácil coger la norma foral e incluir todas las variantes. Tenemos claro qué hay en la base, y lo que hay es que deberían pagar por todo ese terreno que queda en la superficie. Lo que queremos decir es que los bares y los comercios que están soterrados también tienen que pagar el IBI, y no lo pagan. Lo que echamos de menos es que expliquéis por qué no habéis hecho esos cálculos vosotros, por qué decís que nuestros cálculos son incorrectos y vosotros no decís cuánto es en realidad.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Lehenengo ordezko mozioa bozkatuko dugu eta gero jatorrizkoa.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: En primer lugar, votaremos la moción alternativa, y después la original.

**EAJ/PNV, PSE-EE (PSOE) eta PP Taldeek aurkeztutako ordezko mozioa**:

- Aldeko botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 1 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 1 Alderdi Popularra.

**Moción alternativa presentada por los Grupos EAJ/PNV, PSE-EE (PSOE) y PP**:

- Votos a favor: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 1 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 1 del Partido Popular.

**EH Bildu Taldeak aurkeztutako jatorrizkoa mozioa**:

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.

**Moción original presentada por el Grupo EH Bildu**:

- Votos a favor: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Berriz bozkatu behar dugu.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Tenemos que votar otra vez.

**EAJ/PNV, PSE-EE (PSOE) eta PP Taldeek aurkeztutako ordezko mozioa**:

- Aldeko botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 1 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 1 Alderdi Popularra.

**Moción alternativa presentada por los Grupos EAJ/PNV, PSE-EE (PSOE) y PP**:

- Votos a favor: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 1 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 1 del Partido Popular.

**EH Bildu Taldeak aurkeztutako jatorrizkoa mozioa**:

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin eta Alkate andreak kalitatezko botoa erabiliz, **ONARTU EGIN DU Eusko Alderdi Jeltzaleak, Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta Alderdi Popularrak** aurketuriko **ordezko mozioaren** testua.

**Moción original presentada por el Grupo EH Bildu**:

- Votos a favor: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.

Por lo tanto,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, y haciendo la Alcaldesa uso del voto de calidad, **APRUEBA** el texto de la **Moción alternativa** presentada por el **Partido Nacionalista Vasco, el Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y el Partido Popular**, anteriormente transcrita.

**SEI.- ALKATETZAK AURKEZTURIKO MOZIO-PROPOSAMENA, MAYORS FOR PEACE-RI ATXIKITZEKO. (SARRERA ERREGISTROA 2016007779, 2016KO AZAROAREN 16KOA).**

Oraingo gaia ez da tratatzen, saioaren hasieran esandako arrazoiengatik.

**SEIS.- PROPUESTA DE MOCIÓN PRESENTADA POR LA ALCALDÍA, DE ADHESIÓN A MAYORS FOR PEACE. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2016007779 DE 16 DE NOVIEMBRE DE 2016).**

No se trata el presente asunto, por las razones indicadas al inicio de la sesión.

**ZAZPI.- ESKAERAK ETA ITAUNAK.**

➢ **Uribe Padilla andreak (EH Bildu)**:

- ✓ Gogoraraztea Madalenako markesina oraindik egin barik dagoela.
- ✓ IBIaren inguruan bi galdera:

  1.- Ea Foru Aldundiak erantzun duen. Erantzuten ez badu, eskatzen duguna da Durangoko Udala mugitzea eta eskatzea IBIan aldaketa batzuk behar ditugula, bai ala bai.

  2.- Urtarrilaren 27an idatzi bat egin nuen IBIaren inguruko hainbat gai galdetzeko. Eskatzen dugu idatzi honi erantzuna ematea.

**SIETE.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

➢ Concejala **Sra. Uribe Padilla (EH Bildu)**:

- ✓ Recuerdo que la marquesina de Madalena todavía está sin hacer.
- ✓ Dos preguntas sobre el IBI:

  1.- A ver si responde la Diputación Foral. Si no responde, pedimos que el Ayuntamiento de Durango se mueva y que solicite los cambios necesarios en el IBI, sí o sí.

  2.- El 27 de enero elaboramos un escrito para transmitir algunas preguntas sobre el IBI. Solicitamos que se responda.

- ✓ Pasa den astean ikusi genituen hainbat gazte etxebizitza eskubidea aldarrikatzen. Gobernu Taldeak oso ozen esan du zazpi etxebizitza daudela eta alokairurako egongo direla. Oso ondo ikusten dugu, baina eskatzen duguna da gazte hauekin batera lanketa bat egitea eta euren hitza entzutea.

- ✓ Baserritarren azoka: eskatzen dugu mahai hori deitzea.

- ✓ Tesoreria eta Idazkari-ordearen lanpostuak bakante daude oraindik. Betetzeko eskaera egiten dugu.

- ✓ Epaiketa bat irabazi zuen udal honek OTA kudeatzen duen enpresariekin, dirutza handia bueltatuko digute, 233.000 euro inguru. Eskatzen duguna da jakitea zer egingo den diru horrekin.

- ✓ Hondakinen kudeaketa: EH Bildu, 2016ko aurrekontuetan abstenitzeko arrazoietako bat izan zen kontratu honi irtenbide bat ematea. Denbora pasatu da, ez da ezer egin, eta martxoaren 31n amaitzen da azkenekoz egin genuen 6 hilabeteko luzapena. Honi irtenbide bat bilatu behar diogu.

- ✓ La semana pasada vimos a varios jóvenes reivindicando el derecho a la vivienda. El Equipo de Gobierno ha dicho bien alto que hay siete viviendas y que estarán disponibles en alquiler. Nos parece muy bien, pero lo que pedimos es que se trabaje con esos jóvenes y que se les escuche.

- ✓ Feria de *baserritarras*: pedimos que se convoque esa mesa.

- ✓ Siguen vacantes los puestos de Tesorería y Vicesecretaría. Solicitamos que se cubran.

- ✓ Este Ayuntamiento ganó un juicio con la empresa que gestiona la OTA. Nos han devuelto mucho dinero, unos 233.000 euros. Solicitamos saber qué se va a hacer con ese dinero.

- ✓ Gestión de residuos: una de las razones para que EH BILDU se abstuviera en los presupuestos de 2016 fue que se buscara una solución para este contrato. Ha pasado el tiempo y no se ha hecho nada. La última prórroga de seis meses finaliza el 31 de marzo. Tenemos que buscar una solución.

Gai-zerrendan jasotako asuntoak amaitu ostean, eta 18:42ak direnean, alkate-presidenteak amaitutzat ematen du batzarra, eta akta jasotzeari ekiten zaio; eta nik, udalbatzako idazkari nagusia naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 18:42 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.